

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2019/2020 ikasturtea

IRAKASLEEK SORTUTAKO IPUINEN ERABILERA
BALIABIDE DIDAKTIKO GISA

Egilea: Lierni Rekondo Villaron

Zuzendaria: Laura Mintegi Lakarra

Aurkibidea:

Sarrera	4
1.Marko teorikoa	5
1.1 Haur eta Gazte literatura.....	5
1.1.2 Haur eta gazte literaturaren instrumentalizazioa	6
1.2. Helburu hezitzailea eta moralizatzailea.	7
1.3 Haur literatura hezkuntza baliabide gisa	8
1.4 Literatura egungo hezkuntza curriculumean	10
1.5 Sormena eta irakaskuntza.....	11
2. Metodologia eta lanaren justifikazioa	14
2.2 Lehen atala: Trebakuntza.....	15
2.2.1 Lanaren garapenaren egituraketa.....	15
1. taula. Lanaren garapenaren kronologia.	16
2.2.2 Instrumentuaren deskribapena.....	16
2.3 Bigarren atala: Ikasgelan erabiltzeko ipuin baten sorkuntza prozesua.....	16
2.3 Hirugarren atala.....	17
3. Edukiak:.....	17
3.1 Trebakuntza fasea: Sorkuntza ariketak	17
3.2 Ikasgelan erabiltzeko ipuinaren sorkuntza prozesua	19
3.3 Esku-hartzea:	20
3. Ondorioak	23
5. Bibliografia:.....	25
6. Eranskinak:.....	27
1. Eranskina: Sorkuntza ariketak	27
2. Eranskina: Ipuina.....	49
3. Eranskina: Bitakora	51
4. Eranskina: Ebaluazio galdetegia.....	53

IRAKASLEEK SORTUTAKO IPUINEN ERABILERA BALIABIDE DIDAKTIKO GISA.

Lierni Rekondo Villaron

UPV/EHU

Lan honen helburu nagusia da irakaskuntza, sorkuntza eta literatura uztartzea . Lanean proposatzen da irakasleak sortutako ipuinak baliabide gisa erabiltzea. Batetik, literatur sorkuntza ariketak burutu dira irakaskuntzaren arloan sorkuntzak duen gaitasunaren garapena aztertzeko. Bestetik, ipuin baten sorkuntza prozesua dokumentatu da. Azkenik, esku hartze bat diseinatu da aurrez sortutako ipuina baliabide gisa erabiliz. Prozesu honetatik ondorioztatu da sorkuntza gaitasuna landu daitekeen baliabidea dela eta aukera egokia dela irakasleak berak sortutako ipuinak irakaskuntzan erabiltzea.

La utilización de los cuentos creados por el profesorado como recurso didáctico.

El objetivo principal de este trabajo es combinar la enseñanza, la creación y la literatura. En él se propone utilizar como recurso educativo los cuentos creados por el profesorado. Por un lado, se han realizado ejercicios de creación literaria para analizar el desarrollo de la capacidad creativa en el ámbito educativo. Por otro lado, se ha documentado el proceso de creación de un cuento. Por último, se ha diseñado una intervención para el aula utilizando como recurso el cuento creado anteriormente. De este proceso se ha deducido que la capacidad creativa es un recurso que se puede trabajar y que es una buena opción utilizar en la enseñanza los cuentos creados por el profesorado.

The use of the stories created by teachers as an educational resource.

The main objective of this work is to combine teaching, creation and literature. In this work it is proposed to use as an educational resource the stories created by teachers. On the one hand, literary creation exercises have been carried out to analyse the development of creative capacity in the educational field. On the other hand, the process of creating a story has been documented. Finally, a classroom intervention has been designed using the story created above as a resource. From this process it has been deduced that creative capacity is a resource that can be worked on. And that it is a good option to use the stories created by the teachers in teaching.

Sarrera

Jakina da egungo hezkuntza sisteman ez zaiola nahikoa garrantzi ematen sormenari. Curriculumean landu beharreko aspektu gisa agertzen bada ere, ikasgelan bigarren plano batean utzi ohi da Lehen Hezkuntzara heldu orduko. Beraz, heltzen goazen heinean berezko dugun sorkuntza gaitasuna galdu egiten dugu ez erabiltzearen ondorioz. Galera hori irakasleoi ere eragiten digun fenomeno da.

Irakaskuntzari dagokionean, lanbide sortzailea da irakaslearena eta, beraz, sormena ezinbestean landu beharrekoa da. Azken finean, sortzaileak izan behar gara ikasleentzako egokiak diren baliabideak sortuta haien ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Hau guztia aintzat hartuta, lan honen helburua da irakaskuntza eta sorkuntza literarioa uztartzea irakasleak sortutako ipuinak baliabide gisa erabiltzeko. Helburu nagusi hori bete ahal izateko ordea, xede espezifikoko batzuk finkatu dira, lanaren metodologiaren bitartez lortuko direnak.

Era berean, metodologia hau aurrera eraman ahal izateko garrantzitsua da oinarri teoriko bat izatea eta beraz, marko teorikoan bildu dira lan hau aurrera eraman ahal izateko zenbait adituren ideiak, definizioak eta hausnarketak: sormena eta irakaskuntzaren inguruan, literaturaren balio pedagogikoaren inguruan eta baita haur literaturaren inguruan ere.

Honez gain, lan prozesuan zehar ateratako zenbait ondorio eta ideia plazaratu dira. Besteak beste sormena lantzearen garrantzia, literatura baliabide gisa erabiltzearen onura edo hezkuntza sisteman akatsak duen konnotazio negatiboaren ingurukoak.

Halaber, Gradu Amaierako lan hau osatu ahal izateko erabili diren, liburu, artikulu zein bestelako euskarrien erreferentzia bibliografikoa txertatu da.

Azkenik, eranskinen atalean lan prozesuan zehar egindako sorkuntza ariketak, egunerokoa edo bitakora eta esku-hartzea egin ahal izateko ebaluaketa fitxa bildu dira.

1.Marko teorikoa

1.1 Haur eta Gazte literatura

Haur eta Gazte Literatura maiz aipatzen den kontzeptua bada ere, zertaz ari gara Haur eta Gazte Literaturaz hitz egiten dugunean?

Definitzeko dagoen adigaia da oraindik ere. Zenbait aditu norbere adierazpen propioa ematen saiatu diren arren, ez dago orain arteko definizio bateraturik. Aitzitik, lan honen oinarri gisara erabiltzeko egokia deritzogu autore ezberdinen iritzia plazaratzeari kontzeptua argitu eta definizio propio bat eratzeko.

Alde batetik, autore batzuek (P. Zubizarreta, J.Iturralde eta J.K Igerabide 1993, Etxanizek aipatua 1997, 1-3or.) haur eta gazte literatura eta gainontzeko literatura gauza bera dela diote, hau da, ez dagoela ezberdintasunik aurki daitezkeen elementu eta ezaugarriei dagokienean. Ideia honek, literaturtasun kontzeptuaren aipamena erartortzen du, erabat lotuta baitago baieztapenarekin. Hala dio Iturraldek (Etxanizek aipatua 1997, 1-3or.) “Kontua da literaturak, ona bada, ez duela adinik”; horrela, gakoa literaturtasunean eta kalitatean dagoela adieraziz. W.H. Audenek (1974) ere, haurrentzat soilik onak diren liburuak ez daudela dio, kalitateari erreferentzia eginez.

Ideia honi helduz, badaude are urrunago doazen adituak, kontzeptua bera ere zalantzan jartzen dutenak. Cerverak (1991) eta Atxagak (1992) hartzailea jartzen dute erdigunean. Haien hitzetan ez da haur eta gazte literaturarik existitzen, hartzaileak erabakitzen du hartzaile izatea.

Bestalde, badira HGL¹ eta gainerako literatura bereizten dituztenak ere. Juaristik eta Gasenik (Etxanizek aipatua 1997, 2or.) esaterako, formulazioan, idazkeran eta kontaketan ezberdintasunak daudela adierazten dute. “Helduak bezala tratatu behar dira haurrak, eta helduak balira bezala idatzi. Kodea aldatu behar duzu, hori bai, eta ulergarri eman” (Juaristi,1997). Mendizabalek (Etxanizek aipatua 1997, 3or.) bere aldetik, haur literaturari ezaugarri bereizgarri batzuk esleitzen dizkio, hala nola, entretenigarria, atsegina, ulergarria, edo samurragoa izatea.

Definizioekin amaitzeko, bide hauetatik at dauden eta aipatzekoak diren beste batzuk ekarri nahi genituzke gogora. Rubiók (Delgadok aipatua 1998, 4or.) haurtzaroaren ulermen gaitasunari eta haurrei interesatzen zaien munduari gehien egokitzen den literaturaren atala dela deritzo. Carandellek (1977) aldiz, iradokitzen du haur literatura

¹ Haur eta gazte literatura

behar lukeela hurrek sortutako literatura. Beraz, ideia hauek guztiak kontuan hartuta, literaturtasuna galdu gabe, esan genezake haur eta gazte literatura dela haur eta gazteei interesgarria suerta dakiekeena. Hau da, haien interesekoa izanagatik haur eta gazteak hartzaile dituen. Beti ere kalitatea eta hizkuntzaren erabilera estilistikoa mantenduz.

1.1.2 Haur eta gazte literaturaren instrumentalizazioa

Definizioak aztertzerakoan, sarritan agertu dira literaturtasuna eta kalitatea hitzak. Honen harira, HGL instrumentalizatzearen arriskuen inguruan aritu dira zenbait autore eta lan honen oinarriak haur literatura, sorkuntza eta hezkuntza direla aintzat hartuz, garrantzitsua da termino hau aztertzea. Jakina da haur literatura hezkuntza baliabide esanguratsu bat dela eta, hori aitzakia hartuz, instrumentalizatzeko joera zabaldu da. Hau da, haurren beharrei erantzun behar dion zerbait dela argudiatzen denez gero, hezkuntza eta ikaskuntza helburuetan oinarritzen da testu horien sorkuntza, literaturtasuna bigarren plano batean utziz (Cervera, 1989). Beraz, Cerveraren hitzetan, helburu didaktikoa aintzat hartuz haurrei zuzendutako literatur lanek kalitatea erabat galtzen dute.

Haur literaturaren funtsa, bere ezaugarri nagusia, hartzailea da; beraz, badirudi garrantzi gehiago duela haur izenondoak literatura izenak baino, eta idazleak haurrei hitzeko produkzio zehatz bat iritsiarazteak alderdi literarioak baina garrantzi handiagoa duela (lanaren egilearen itzulpena).

(Atxaga, 1999)

Instrumentalizazioak, hau da, HGL hezkuntzarako instrumentu edo baliabide gisa erabiltzeko ez luke berezko konnotazio negatiborik eduki behar. Instrumentalizatzeak literaturtasuna eta kalitatea galtzeko arriskua badakar, nola ekidin hori? Honen aurrean, aintzat hartzekoa da Atxagak (1999) egindako hausnarketa. Haur literaturan garrantzi bera eman behar bailitzaieke bi terminoei, adjektiboari soilik erreparatu beharrean.

1.2. Helburu hezitzailea eta moralizatzailea.

Literaturak sugestio gaitasun itzela dauka eta irakurle amorratu orok badaki fikziozko pertsonaiek zein neurritan egituratu duten bere bizitza, pentsaera (...) Literaturarekiko lilura hau, irudimenezko munduaren aurrean dagoena, areagotu egiten da irakurlea gaztea denean (lanaren egilearen itzulpena).

(Orquín, 1989)

Literaturak duen eragiteko gaitasuna aintzat hartuz, helburu morala egon da beti haurrentzako lanei atxikita. Gure ingurura begiraturaz gero, argi ikusten da nola dagoen ideologia presente kontsumitzen ditugun adierazpide artistiko zein komunikaziokoetan. Beraz, haur literaturan ere gauza bera gertatzen da. X. Etxanizen (1997) hitzetan, sarri haurrentzako literatura izanagatik neutroa delako ustea dugu, baina hori gezurra da ezinezkoa baita apolitikoak izatea. Helburu moralizatzaile hau lortzeko hizkuntza, estiloa, estereotipoen txertatzea eta beste zenbait baliabide erabiltzen dituzte; Esplizituki zein inplizituki.

Gaur egun HGL eskolan balioen trasmisore bezala erabiltzen da (Etxaniz, 1997). Ikasbidetan oinarritutako diskurtso didaktikoak, haurrentzako testuetan alderdi artistikoari garrantzi gutxiago ematea ekartzen du, eta sarritan irakasleek alderdi hori ahazten dute helburu ideologikoari garrantzia emateko (Rönner, M. A. D., eta Adelia, M. ;2001)

Kutsu moralizatzailea duen haur literaturak garatzean harekiko irudi ona ere garatzen da, non sektore hegemonikotik, hau da helduen sektoretik, datozen betebeharrak eta printzipio etikoak eraikitzen diren, sektore honek “ahistorikoki” proiektatu nahi baitu bere burua.

Modu honetan, konsagratutako Haur literaturak bere tranpa propioak sortzen ditu, bere errutina propioa eta bere estereotipo propioak. Gainontzeko literaturaren antzera baina bortizkeria handiagoarekin eta boterearen erabilera handiarekin. Horrela haurren literatura Arketipoen Lurralde definitua bihurtzen da (lanaren egilearen itzulpena).

(Rönner, M. A. D., eta Adelia, M. 2001).

Autore hauen hitzek dioten bezala, literaturak helduen sektore hegemonikotik eratorritako balio etikoak barneratzen laguntzen du, eta modu honetan, haur literaturak bere *cliché* edo estereotipo propioak eraikitzen ditu eta jarrera eta pentsamolde ereduak eskaintzen dizkie haurrei.

Beraz, hau guztia kontuan hartuta, ondorioztatu genezake literaturak balioak transmititzen baditu jakintza ere transmititzen duela, eta beraz, hezigarria dela.

1.3 Haur literatura hezkuntza baliabide gisa

Aurreko atalean aipatu bezala, literatura hezigarria da. Baina zergatik erabili hezkuntza baliabide gisa? Atal honetan, ipuinen kategoria aztertuko dugu bereziki.

Prietoren (2008) hitzetan, ipuinak alegiazko gertakari baten narrazio laburrak dira eta baliabide eraginkortzat ditu ikaskuntza transmititzeko eta baita sentimentalki eragiteko ere. Azken baieztapen hau aipagarria da, izan ere, sentimentalki eragiteak ikasitako hori hobeto barneratzea eragiten baitu.

Ipuinak hezigarriak direla eta, hortaz, hezkuntzan erabili daitezkeela berresteko, autore ezberdinen zenbait argudio aztertu ditugu, zeintzuetan kontakizun hauek alderdi ezberdinetan dakartzaten onurak baieztatzen diren. Iglesiak (2008) dioenez, irudimena lantzeko tresna izateaz gain ipuinak igorlearen eta hartzailearen arteko afektibotasun harremana indartzen du eta, ondorioz, haurren sozializatzeko prozesurako gakoetako bat bihurtzen da.

Halaber, beste aditu batzuek irakurleak sortzeko baliabide bezala planteatzen dute haur literaturaren erabilera hezkuntzan. Colomerrek (2005) dio haurtzaroan ipuinak partekatzeak irakurle bihurtzearen aukerak bikoizten dituela, beharbada literaturaz zuzenean hitz egitea baino efektiboagoa dela iradokiz. Aipatutakoaz gain, literaturak lengoaiaren garapenean onurak ere ekar ditzake. Sandovalek (2005) adierazten duen moduan, lengoaiaren garapenean eta sorkuntza literarioan eragin handia dute besteak beste. Gainera, haurrei mundua ulertzen lagundu diezaiekela ere aipatzen du.

Prietok (2008), bere aldetik, ipuinen funtzio pedagogikoaren inguruko zenbait ideia interesgarri utzi dizkigu. Bere hitzetan, haurrentzako ipuinek lengoia lantzen laguntzeaz gain, lengoaiaren eta literaturaren alderdi estilistikoaren inguruko sentikortasuna garatzen laguntzen dute, baita hiztegia zabaldu eta adierazkortasuna lantzen ere. Honez gain, haurren garapen pertsonalerako ezinbesteko tresna direla iradokitzen digu. Besteak beste, ideiak eta sentipenak identifikatzen laguntzen dutelako,

sormenaren bitartez izan nahi duten hori izateko aukera dutelako, hausnarketarako bide ematen dutelako etab. Autoreak garapen kognitiboari ere egiten dio erreferentzia, bere hitzetan halako narrazioek logikaren garapenean, arreta mantentzeko gaitasunean edo denboraren egituraketan lagundu baitezakete. Azken finean, jakintza iturri gisa definitzen ditu ipuinak.

Michele Petitek (2005), bere aldetik planteatzen du ipuinek hurrei aukera ematen dietela nork norbere buruarekin elkarrizketa edukitzeko eta, ondorioz, ni-aren, edo bestela esanda, norberaren izaeraren garapenean laguntzen dutela. Irakaskuntzarako oso baliabide lagungarriak dira ipuinak;

Baliabide honek aukera ematen dio irakasleari ikasleen beharrak aintzat hartuz bere irakaskuntza estrategiak bideratzeko. Modu honetan, haurrentzako ipuinak ikasgeletan txertatzearen garrantzia nabarmentzen da, bertan sortzen baita hizketarako, galderak eta zalantzak elkar banatzeko eta haurren interesekoak diren gaietan sakontzeko espazio egokiak (lanaren egilearen itzulpena).

(Jiménez Ortíz, M. L., eta Gordo Contreras, A.,2014).

Autore hauek adierazi moduan, irakasleentzat oso aberasgarria da baliabide honen erabilera. Izan ere, ipuinak ikasleen arabera sortuak edo egokituak izateko aukera ematen dute, bai gaiei dagokienean eta bai hizkuntza maila zein alderdi teorikoagoei dagokienean ere. Gainera, haurrak hobeto ezagutzeko aukera ere eskaintzen digu ipuinen erabilerak (Prieto, 2008). Bestalde, kontuan hartuz umeek ipuinak bizitako esperientziekin lotzen dituztela, ikaskuntza adierazgarria garatzen laguntzen diete eta, ondorioz, pentsamendua garatzen ere bai. Gainera, ipuinek mezuak errazago barneratzea ahalbidetzen dutenez gero, irakasleek aukera ematen dute haurren ikasketa prozesuan parte hartzeko era zuzenago batean. (Jimenez Ortiz eta Gordo Contreras, 2014) .

Beraz, literaturaren zehazki ipuinen erabilerak dakartzan onurak kontuan hartuz, aukera egokitzat daukagu ipuinak baliabide modura txertatzea gure programazioetan eta esku hartzeetan.

1.4 Literatura egungo hezkuntza curriculumean

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia erkidegoan *Heziberri 2020* ezarritako 236/2015 dekretuan plazaratutako curriculumaren arabera honako trataera ematen zaio literaturari Lehen Hezkuntzan.

Curriculumean Hizkuntza eta Literatura mundua ulertzeko tresna gisara agertzen dira, eta hala definitzen da hizkuntza eta literaturarako kompetentzia; literatur testuen esanahia ulertu eta eraikitzea, hauek balioestea eta sentsibiltate estetikoaren garapena barnebiltzen dituen kompetentzia da.

Ikasgaiaren ikuspegian literatura hezkuntzak hizkuntzaren inguruko aurretiko ikaskuntza prozesu bat behar duela iradokitzen du, hots, hizkuntza menderatu behar duela, horrek emango baitio haurri literaturarekin gozatzeko aukera.

Gainera, literatur-testuen eta testuinguruaren erlazioak aintzat hartzearen garrantzia azpimarratzen du.

Literatura-hezkuntzak, aurreko ikaskuntza guztiez gain, berariazko beste ikaskuntza batzuk behar ditu literatura behar bezala ulertu, balioetsi eta gozatzeko; beti ere, literaturaren berezko konbentzioei erreparatuta eta literatura-testuaren eta testuinguruaren arteko erlazioak aintzat hartuta.

Amaitzeko, kompetentzien arloari erreparatuta, arterako kompetentziaren atalean erreferentzia egiten zaio literaturari. Bertan literatura lanak ulertzeko gaitasuna landuz gero, literatur ondarrera hurbiltzeko aukera dagoela adierazten da eta baita gizakiaren eta gizartearen kezken eta gaien inguruko ideietara ere, eta beraz, arterako kompetentzia garatzeko bide ematen duela. Honez gain, hizkuntza lantzeko literatura eta bestelako arte adierazpenak erabiltzea eraginkorra suerta daitekeela azpimarratzen du. Hala ere, lotura hau ikaskuntzaren ikuspegi globalizataile batetik egitea ezinbestekoa dela adierazten da.

Literatura atalean lantzen diren edukiei erreparatuz gero, eduki komun batzuk aurki daitezke lehen eta bigarren zikloetan. Hala nola, literatura klasikoa eta haur literaturaren irakurketa eta honekin izandako esperientziaren partekatzea; ipuinak eta beste zenbait literatura genero irakurtzea edo testuak modu dramatizatuan adieraztea.

Aipatutakoaz gain, lehenengo zikloan, testuak modu gidatuan ekoiztea, liburuak eta literaturaren inguruko baliabideak erabiltzea, eta literatura jardueretan parte hartzea aurki daitezke. Halaber, genero literario ezberdinen lanketa eman eta ahozko literatura ere agertzen da, bertsolaritza eta beste genero batzuen bitartez.

Bigarren zikloari dagokionean, aurreko edukiak agertzen dira haurren garapenari egokituta, esaterako, testuen irakurketa dramatizatuan tonua, erritmoa eta bestelako alderdiak zaintzea, ipuinak eta poemak sortzea, haien adinarekin bat datozen testu literarioen laburpenak egitea, baliabideak modu autonomoago batean erabiltzea edo literatura zein hizkuntzaren ezaugarri batzuk identifikatzea.

Heziberri 2020 aztertuta, ikusi daiteke literaturak lekua duen arren, hizkuntzari eta honen lanketari ematen zaiola garrantzi gehiago beharbada literatura bigarren plano batean utziz.

1.5 Sormena eta irakaskuntza

Atal honi hasiera emateko Hernandezek (1996) planteatutako galdera bat bota nahiko genuke: irakasle izateak pertsona sortzailea izatea inpliketzen du? Galdera honi erantzuna eman ahal izateko ordea, sormena definitu behar da lehenbizi.

Martin eta Martinen arabera (2012), sormena latinetik eratorritako hitza da “*Creare*”-k sortzea esan nahi du, hots, lehenago existitzen ez zen zerbait egitea. Beraz, sormena gizakiak hutsetik sortzeko duen gaitasuna dela esan genezake. Lau aspektu ezberdin ditu; a) subjektua, sortzaile gisa definitzen dena, b) prozesua, c) sortutako produktua eta d) testuingurua. Behin oinarritzko galderari erantzuna emanda, bigarrena aztertzeari ekingo diogu.

Escorizaren (1989) hitzetan, lanbide paradoxikoa da gurea, izan ere, gaur egun lanbide ez sortzaileen kategorian kokatzeko joera dago, nolana ere, tradizioz irakasle sena berezkoa delako ustea zabaldu izan da, eta, ondorioz, irakastea prozesu artistikotzat hartu. Beraz, ustez lanbide ez sortzailea bada ere irakasle sena berezkoa dela pentsatzen bada, berezkotasun horrek arte izaera ematen dio eta artea den edozerk sorkuntza edo sormen prozesu bat eskatzen du.

Martin eta Martinek (2012) baieztatzen dute sormena ikasi daitekeen zerbait dela, eta, beraz, irakatsi ere egin daitekeela. Izan ere, Hernandezek (1996) adierazten duen moduan urte luzeetako prozesu baten ondoren, jenialtasunaren berezkotasunarekin hautsi eta sorkuntza potentzialaren eredura egin da jauzia. Hau da, gaur egun esaten da pertsona orok duela sorkuntza gaitasun potentziala, testuinguruaren baldintzen menpe garatzen dena.

Hori aintzat hartuz, hezkuntzak funtsezko paper bat jokatzen duela azpimarratzen dute haurrei sormena garatzen laguntzeko. Jakin badakigu sortzailea izatea funtsezkoa

dela gizartean, horregatik, garatu beharreko alderdi hau hezkuntzarekin erlazionatuz gero, balio eta eskakizun sozial bat da sormenaren garapena, eta ondorioz, hezkuntza helburu bat ere bihurtu zaigu. (De la Torre, 1997)

Irakastea ekintza bera aztertuz gero, ekintza sortzailea dela esatera ausartuko ginateke, izan ere, Hernandezek (1996) adierazten duen moduan, heziketa prozesu orok sorkuntza prozesu bat inplikatzeko du.

Hezkuntzak eta sormenak duten harreman estua aintzat hartuz, esan daiteke irakasle izateak ez duela berez sortzaile izatea inplikatzeko, baina autore hauek plazaratutako ideiak ikusita, beharrezkoa deritzogu irakaslea sortzaile izatea eta beraz gaitasun hori garatzeko ahalegina egitea.

Sormena ez da bakarrik eskola esparruan egon behar, beharrezkoa da zabaltzea eta guztiongana heltzea edozein lanbidetan, kontuan hartuz edozein giza jardura ideia berrien, originalen edo sortzaileen bitartez hobe daitekeela. Garrantzitsua da irakasleen formakuntzak pentsamendu sortzailearen garapena beregain hartzea, horrela, egoera bati aurre egiteko edo hausnartzeko dauden aukera ezberdinetara irekita egoteko bere irakaskuntzaren jardura egoerara eta tokian tokiko baldintzetara moldatzeko, arazoak ebatzi eta erabakiak hausnarketa prozesu baten ondoren hartzeko. Irakasleak sorkuntzaren inguruko formazio handiena duen profesionala izan behar du, ez baitago irakaskuntza eta ikaskuntzaren inguruko argibide zehatzik (lanaren egilearen itzulpena).

(Galvis, R. V. 2007)

Galvisek adierazten duen bezala, sormena hezkuntzan ez ezik, garrantzitsua da egunerokotasunean bizitzako beste gainontzeko arloetan ere presente egotea eta, aurrez esan bezala, sormena garatzen laguntzeko hezkuntza esparru egokia denez gero, eta irakasleak neurri handi batean horren ardura duela aintzat hartuz, ezinbestekoa da irakasleak sortzaile izatea eta, batez ere sormenaren inguruko formakuntza jasotzea.

Aipagarria da Guilfordek dioen moduan, sorkuntzari dagokion hezkuntzak bideratuta egon behar duela inizatibadun pertsonak heztera, beren buruarekiko konfiantzadunak eta arazoei aurre egiteko prest egongo direnak. “Modu sortzaile batean heztea haurrak aldaketarako hezi eta gizartean berrikuntza ahalbidetzea da.” (Guilford, 1978, p. 34)

Irakasleei eman beharreko formakuntza horrek, ordea, esperientzian oinarritua beharko luke, beharrezkoa baita sorkuntza prozesuak norbere haragitan bizitzea gero transmisioa egin ahal izateko. Beharbada horregatik egiten zaie hain zaila egungo irakasleei irakaskuntza sortzailea egitea, sorkuntza prozesuen inguruko bizipenik ez dutelako. (Hernandez, 1996)

Beraz, ikasle sortzaileak hezteko irakasle sortzaileak behar dira.

Hau kontuan hartuz Hernandezek dio irakasleek jaso beharreko formakuntza oinarrituta egon behar duela eskolaren testuinguruan eta, beraz, irakasle funtzioan. Eta, beraz, egokiena litzatekeela testuinguru eta baldintza sortzailez hornitzea irakasleen ikasketa esparrua.

Azken finean, Babicka, Dudek, Makiewicz eta Perzycka (2010) adituek baieztatzen duten moduan irakaslea etengabeko hazkuntza eta auto-hobetze prozesu batean dago eta horrek jarrera sortzaile bat edukitzera darama. Horregatik, beharrezkoa litzake irakasleek hezkuntza ekintza sortzaile eta ez estandarizatu baten gisan ulertzea.

De la Torre (1997), proposamen gisan didaktikoki ekiteko modua sorkuntza prozesura egokitzen du, honela irakaslearen jarrera didaktikora itzultzen. Prozesu didaktikoa sormenaren estimulatzailea dela ematen du aditzera. Eta, beraz, Prozesu sortzailea prozesu hezitzailean transferitzean datza, hau da prozesu hezitzailea aurrera eramateko egiten diren jarduerak zein erabiltzen diren materialek sorkuntzarako bide ematea, izan ere, bere hitzetan, edukiak ez ditu prozesu orokorra eta sorkuntza prozesua aldatzen.

Lópezek (1994), bere aldetik, pentsamendu sortzailea zentzumen guztiak martxan jarriko dituen esperientzia didaktikoen bidez garatzen saiatzea aukera ona litzatekeela baieztatzen du. Hau da, tradizionalki lantzen ez diren alderdi emozionala eta alderdi sensorialak lantzea haurrentzat estimulatzaileak diren esperientzia didaktikoen bitartez.

Irakaslegoak sormena lantzeko proposamen hauek interesgarri bezain beharrezkoak dira oinarri bat ematen baitute etorkizunean modu eta proposamen berriak sortzeko.

Bestalde, bada sormenaren eskutik helduta doan beste kontzeptu bat, hausnarketa:

Profesional gogoetatsu batek hausnarketa eta feedback-a erabiliz egiten du lan: Bere lantokia, hipotesiak eta emaitzak aztertzen ditu, esperientzia analizatzen du, aldaketak egiten ditu, aurkikuntza teorikoen erabilera

berriak ikasten ditu etengabean eta bere ikaskuntza estrategietara aplikatzen du (lanaren egilearen itzulpena).

(Taraszkiewicz, 1998)

Oso interesgarria da Taraszkiewicz-ek adierazten duen ideia. Irakasleak gogoetatsua izan behar du, ingurua aztertu, hausnartu eta hortik ateratako ondorioak ikaste eta irakaste prozesuetara aplikatu. Hau horrela izanik, esan daiteke sormena ezinbestekoa dela hausnarketa prozesu honetan, hausnartzea eta gogoetatsua izatea irakaskuntzarako ezinbestekoa den moduan.

Atal honi amaiera emateko eta nolabait aipatutakoaren sintesi bat egiteko, egokia iruditzen zaigu aditu hauek irakasle modernoaren eta sormenaren inguruan egiten duten hausnarketa hau ipintzea:

Irakasle modernoa pertsona sortzailea da; Ez da adierazpenetara mugatzen, errepikatuz eta imitatuz, bere baliabide propioak erabiltzen ditu. Garrantzitsua da irakaslearen jarduna berak hezkuntzarekiko duen ikuspegiarekin bat etortzea (...) Ikusteko eta erantzuteko trebetasuna ere bada (From, 1989). Sorkuntzarako kompetentzia irakaslearen ekintzen arabera hartuko da kontuan. De Bonok (1968) sortu hitza osagai erabiltzen du erreferentzia egiteko, material edo aurretiko metodoetatik abiatuz, berria den zerbait osatzeari, baita produktua egin edo garatzeari. Garatzen dena eta eraikitzen dena berria da lehenago existitzen ez zelako (lanaren egilearen itzulpena).

(De Bono, 1994; 1968; Necka, 1995; Dewey, 1910; Freud, 1958; From, 1989)

2. Metodologia eta lanaren justifikazioa

Proposamen hau aurrera eramateko, marko teorikoan aztertu diren adituen ideiak aintzat hartu dira oinarri teoriko modura. Honen baitan egituratu da lan honen metodologia. Aurretik esan bezala, lan honen helburu nagusiak bi dira. Batetik, aztertzea ea irakaslearen literatur sorkuntza-gaitasuna garatu daitekeen ala ez. Eta, bestetik, aurreko helburua kontuan hartuz, irakasleak sortutako ipuinak baliabide gisara erabiltzearen baliagarritasuna frogatzeko proposamen didaktiko bat aurkeztea.

Amaitzeko aipatu beharra dago nire lehenetasuna ipuinak baliabide gisara erabiltzearen baliagarritasuna frogatzea izan dela. Dena den, ezinbestekoa iruditu zait, ipuinak irakasleek sortuko dituztenez gero, irakaskuntzaren arloan sorkuntza gaitasunak izan dezakeen garapena ere aztertzea.

2.2 Lehen atala: Trebakuntza

Lehenengo atalean, literatura sorkuntza-ariketak burutuko dira lau astetan zehar. Ariketa hauek Gianni Rodariren *Grámatica de la Fantasia* (2006) liburuan oinarrituko dira, azken urteetan literatura pedagogikoan erreferente izandako liburuan alegia.

2.2.1 Lanaren garapenaren egituraketa

Egutegi bat burutu da Rodariren liburutik hautatutako literatur sorkuntza ariketa mota ezberdinekin (ikus 1. taula), eta ariketa bana egingo da bertan ipinitako egun bakoitzean. Atal honen sarreran aipatu bezala, trebakuntza fase honen xede nagusia sorkuntza gaitasuna garatu daitekeen edo ez aztertzea izango da, eta horretarako zenbait helburu zehatz izango ditu atal honek, besteak beste, literatur sorkuntzaren lanketa espezifikoak eragin dezakeen progresioa, lor daitezkeen emaitzak eta funtsean, honen, baliagarritasuna aztertzea.

<u>SORKUNTZA ARIKETAK</u>		
IZENA	AZALPENA	DATA
Hitzaren deskonposaketa	Burura etorritako lehen hitza hartu eta hitz horren hizki bakoitzeko beste hitz bat idatziko da. Hitz horiek guztiak istorioan aipatu behar dira.	Otsailaren 3 eta 24ean.
Binomio fantastikoa	Haien artean zerikusirik ez duten bi hitz hartu eta	Otsailaren 11 eta 18an

	harremanetan jarri istorio bat sortzeko.	
Jolas zaharrak	Egunkari eta aldizkarietako titularrak moztu eta nahastu titular berri fantastiko bat lortu eta horren inguruan idazteko.	Otsailaren 5 eta 28an
Istorioak eraldatzen	Ipuin tradizional bat eraldatu.	Otsailaren 7 eta 26an.
Hipotesia	Hipotesi fantastiko batetik abiatuta istorio bat sortu.	Otsailaren 15 eta 22an.
Bidaia etxetik barrena	Etxeko bi objektu arrunt hartu eta horiek protagonista diren istorioa idatzi.	Otsailaren 9 eta 23an.

1. taula. Lanaren garapenaren kronologia.

2.2.2 Instrumentuaren deskribapena.

Lehen atalean aurrez aipatutako Gianni Rodariren *Grámatica de la Fantasia* (1973) liburua erabiliko da. Azken urteetan literatura pedagogikoan erreferente bihurtu den lan honetan, Rodarik, sorkuntza literarioan sakontzeko zenbait teknika biltzen ditu aurreko atalean ikusgai dagoen taulan azaltzen direnak. Teknika hauek idazketa sortzailerazuzenduta daude, eta beraz, sormenaren garapenera. Marko teorikoan aipatu bezala, sormena landu eta garatu baitaiteke.

2.3 Bigarren atala: Ikasgelan erabiltzeko ipuin baten sorkuntza prozesua

Bigarren atala klaserako baliabide espezifikoa, ipuina, idazteko sorkuntza tartea izango da. Beraz, ikasleen ezaugarriak eta beharrak aintzat hartuta, gai bat aukeratu eta, honetan oinarrituta, haiei zuzendutako ipuin bat idatziko dut. Horretarako, kontuan hartuko dira aurrez egindako sorkuntza ariketak eta marko teorikoan eskuratutako informazioa. Bitakora formatua erabiliko da sorkuntza prozesua dokumentatzeko, eta

bertan dokumentatuko dira sorkuntza lanean ematen diren pausu guztiak, sortutako kezkak, aldaketak eta, finean, aipagarriak diren xehetasunak.

2.3 Hirugarren atala

Atal honetan, istorioa baliabide didaktiko gisara erabiltzeko esku-hartzea diseinatuko da. Horretarako, ikasgelako testuinguruaren azterketa egingo da lehenbizi. Hori kontuan hartuz, jarduera ezberdinak diseinatuko dira beti ere irakasleak, kasu honetan nik neuk sortutako ipuina erdigunean jarritz. Esku-hartze honen ebaluaketa irizpideak ere zehaztuko dira.

3. Edukiak:

3.1 Trebakuntza fasea: Sorkuntza ariketak

Trebakuntza fase honetan, Rodarik *Grámatica de la fantasia* (1973) liburuan plazaratutako zenbait literatur sorkuntza ariketa egin ditut, literatur sorkuntzaren lanketa espezifikoak eragin dezakeen progresioa, lor daitezkeen emaitzak eta funtsean, ariketa hauen baliagarritasuna aztertzeko. Aurrez ipinitako egutegia jarraituz (ikus 1.taula), ariketa bana egin dut egun bakoitzean.

Idazteko errutina ezarri dut, horretarako, beti leku eta ordu berean egin ditut ariketak. Horrek, idazteko ohitura bat sortzea ahalbidetu dit eta baita disziplina mantentzekoa ere. Lehen fase hau burutu bitartean, aipagarriak diren zenbait ondorio atera ditut jarraian azalduko ditudanak.

Lehenik eta behin, haurrak hartzaile dituen literatura idaztearen zailtasunaz ohartu naiz, batez ere, literatura hori hezkuntza baliabide gisa erabiltzeko idazten denean. Marko teorikoan aipatzen den literaturtasunaren kontzeptuak, edukiak lantzearen helburuarekin talka egiten du, eta idazlearen edo, bestela esanda, istorioa sortzen duenaren ikuspuntutik, zaila da literaturtasunaren eta instrumentalizazioaren arteko oreka topatzea.

Bestalde, sorkuntza ariketa hauek irakasle baten paperean jarritz egin ditudanez gero, helduek helduentzat idazteko joera dugula nabarmendu nahiko nuke. Egindako ariketa ezberdinak haurrentzako erakargarri izan daitezkeen elementuetan oinarrituta egon badira ere, helduen egitura mentaletik idazteko joera nabarmendu da eta, beharbada, horren ondorioz, istorio hauek haurrentzat erakargarriak ez izatea suerta daiteke. Beraz, funtsezkoa da haurren perspektibatik idaztea, hots, haurrek bezala pentsatzea, sentitzea eta imajinatzea haientzat sortu ahal izateko. Honen harira, hizkuntza mailaren garrantzia

ere kontuan hartu behar da, ez baita berdina hamaika urteko haurrentzat istorio bat idaztea edo bost urteko haurrentzat idatzitakoa.

Sorkuntza ariketa hauek egiteak nire sorkuntza gaitasunean izan duen eraginari dagokionean, ibilbide esanguratsu bat egon dela esan daiteke. Hasiera batean zaila egin zait ariketa ezberdinetan planteatzen ziren konsignak jarraituz sortzea, nahiz eta oinarri bat eduki, baleko istorio hori imajinatzea eta, batez ere, zuzentasunaren, errealismoaren eta akademiaren muga horietatik ateratzea kostatzen zela egin zaidalako. Honek, akatsari diogun beldurrarekin zerikusia du, eta hezkuntzaren ikuspuntutik aztertu beharreko alderdia dela deritzot.

Idazten hastea kostatzen egin zait sarritan, burura etorri zaizkidan ideiak egokiak ez direla pentsatzeak sortutako blokeoaren ondorio. Egungo hezkuntza sisteman huts egitea negatibotzat hartzen da, eta haurrei ez zaie akatsik egiten uzten perfekzioa baita bilatzen dena. Akatsa, ordea, funtsezkoa da ikasteko eta aurrera egiteko, baita emaitzak lortzeko ere. Ariketa hauek egiterakoan literaturan (eta, oro har, sorkuntza esparru gehienetan) ere halako zerbait gertatzen dela ondorioztatu dut, saiakera-errakuntza dikotomia beharrezkoa dela emaitza lortzeko.

Aurrez aipatutako idazten hasteko zailtasunak, zerikusia izan dezake hezkuntzan ematen den sormenaren lanketa urriarekin. Haur hezkuntzan sormena lantzen den arren, heldu ahala, honi eskaintzen zaion denbora geroz eta urriagoa da, beraz, heldutasunera heltzean ez gaude sortzera ohituta, eta horrek eragina dauka halako ariketak egiterakoan.

Bestalde, aipagarria da sortzerakoan izan beharreko diziplina. Ariketa hauek eguneko bat egiteko ezarriak bazeuden ere, batzuetan ez da posible izan, markatuta zegoen egunean ez baitut ariketa amaitzea lortu. Sortzea bulkada bidez egiten den zerbait delako ustea zabaldu izan da mendeetan zehar eta, neurri batean, hala izan daiteke; baina, horretaz gain, lana eta Kostantzia ere eskatzen ditu, gauzak ez baitira burura bakarrik etortzen.

Fase honetan aurrera egin ahala askeago sortu dudala esan nezake. Apurka-apurka akatsari beldurra kudeatzen ikasi dudala eta haurren perspektibatik idazteko ahaleginak bere fruituak eman dituela. Ariketa kognitibo interesgarria da sorkuntza gaitasuna landu daitekeela argi uzten duena.

3.2 Ikasgelan erabiltzeko ipuinaren sorkuntza prozesua

Baliabide didaktiko gisara erabiltzeko ipuina sei eguneko epean idatzi da. Lehenbizi, landu nahi dudana gaia hautatu dut, horretarako klaseko errealitatea kontuan hartuz.

Praktiketako klasea erreferentzia hartuta idatzi dut ipuina. Lehen Hezkuntzako 6. mailako 28 ikasle dira, 14 mutil eta 14 neska. Nerabezaroaren atarian daude eta oso argi bereizten dira bakoitzaren rolak eta taldearen parte sentitzeko beharrak. Norberaren izaera eta gustuak albo batera uzteko joera dute eta batek baino gehiagok arazoak ditu bere buruarekin.

Ikasleen testuingurua kontuan hartuta autokontzeptua edo auto-irudia hartu dut gaitzat. Lehenbizi *brainstorming* edo ideia zaparradaren teknika erabili dut ipuina idazteko ideiak eskuratu eta sorkuntza prozesuari nolabaiteko hasiera emateko.

Behin hau eginda, bertatik atera ditut gerora erabili ditudan zenbait ideia eta kontzeptu eta ipuinaren oinarritzko ideia garatu dut. Honetarako hiru ideia garatu ditut eta ondoren egokiena hautatu.

Jarraian, narratzailearen ahotsa nor izango den hautatu dut eta behin hori eginda pertsonaiak eta datu zehatzak (non gertatzen den, nola...) definitu ditut.

Oinarritzko eskema egin ondoren zirriborroa idazteari ekin diot. Bi eguneko prozesua izan da honako hau. Behin idatzita, dagozkion zuzenketak egin dizkiot istorioari.

Prozesu honetan zehar zenbait traba eta mugarri garrantzitsu egon dira. Beharbada zailtasunik handiena erabili beharreko hizkera aukeratzea izan da. Kontuan hartuz ikasle hauen adina, haur literaturaren eta gazte literaturaren arteko mugan kokatzen dira, eta bien arteko orekan egongo den hizkera egokia topatzea zaila suertatu zait. Argumentua eta narratzailearen hautaketa ere adinak baldintzatuta egon dira. Istorio honetako (ikus 2. eranskina) narratzailea pertsonifikatutako objektu bat izatea eta, aldi berean, gazteentzako ipuin batek nire ustetan eduki behar duen gutxieneko errealismo maila mantentzearen beharrak, narratzailearen papera behin baino gehiagotan birplanteatzea eragin du.

Bestalde, aurreko atalean aipatutako akatsari beldurra ere agertu da sorkuntza prozesu honetan. Behin garatutako hiru ideietatik bat hautatzerakoan, bereziki zaila egin zait idazten hastea, zuzenean testurik egokiena idazteko nahiak erabat oztopatu duelako sormenaren jariartotasuna. Behin lehen zirriborroa amaituta, ordea, aipagarria da atal honetan zuzenketek izandako garrantzia. Oinarritzko testutik amaierako testura dagoen

distantzia nabarmena da, tarteko zuzenketek ipuina osatu eta biribildu dutelako. Beraz, bi testuen arteko distantzia honek, aurreko atalean aipatutako saiakera-errakuntza prozesuaren garrantzia berresten du.

3.3 Esku-hartzea:

Esku-hartze hau aurrez sortutako ipuinean oinarritua dago eta, beraz, eskuhartzearen muina ipuina da.

ESKU-HARTZEA			
Maila:	6.Maila	Saio kopurua:	2 saio
Proposamen didaktikoaren justifikazioa			
<p>Hamabi urteko ikasleak izaki, nerabezaroaren atarian daude eta oso argi bereizten dira bakoitzaren rolak. Taldearen parte sentitzeko nahiak haien buruarekiko arazoak izatera eramaten ditu. Horregatik, esku-hartze honen helburua autokontzeptua eta auto-irudia lantzea izango da.</p>			
Gaitasunak			
<p>Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</p> <p>Esku-hartze honetan autokontzeptua da gai nagusia eta horrek euren buruarekiko duten harremanaren inguruan hausnartzeko aukera ematea da helburu nagusienetako bat. Ikasleak aukera izango du norbera izateko eta irakasleak konfiantza giro bat sortzeko ahalegina egingo du ikasle orok sentitzen duena, eta pentsatzen duena askatasunez azaleratu ahal izateko.</p>			
<p>Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</p> <p>Esku-hartze hau hausnarketara bideratuta dago erabat eta, beraz, horrek konpetentzia hau lantzea ahalbidetuko du.</p>			
<p>Elkarbizitzarako konpetentzia</p> <p>Esku-hartze honen helburuetako bat, aniztasuna errespetatzea da eta pertsona oro den bezalakoa izanda onartzea. Horregatik, aniztasuna eta errespetuaren trataerak elkarbizitzarako konpetentzia lantzea ahalbidetzen du.</p>			
Helburuak			

<ul style="list-style-type: none"> • Autokontzeptu eta auto-irudiaren inguruan hausnartzea. • Norberaren burua den bezalako onartzea. • Pertsona oro den bezalako onartzea. • Elkarrekiko errespetua sustatzea
Edukiak
<ul style="list-style-type: none"> • Autokontzeptua • Auto-irudia • Enpatia • Errespetua • Emozioak
Ebaluaketa adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> • Ea ipuinean agertzen diren autokontzeptu eta auto-irudiaren inguruko gatazkak identifikatu dituzten. • Ea gaiaren inguruko hausnarketetan parte hartu eta ondorio pertsonalik atera duten: modu kolektiboan zein indibidualean. • Ea elkarrekiko errespetuz jokatu duten. • Ea proposatu zaizkien ekintzetan parte hartu duten.
Ebaluaketa tresnak
<p>Esku-hartze honetan, bi tresna nagusi erabiliko dira, behaketa eta amaierako galdetegia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Behaketari dagokionean, irakaslearen ardura izango da jarduerak irauten duten bitartean ikasleen jarrera behatzea. Behaketan honako aspertu hauek hartuko dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> ○ Parte-hartzea. ○ Jarrera. ○ Ipuina irakurtzen ari denarekiko zein beren kideekiko errespetua. ○ Gaiarekiko interesa. • Galdetegiak (ikus 4. eranskina) bi atal ezberdin izango ditu. <ul style="list-style-type: none"> ○ Lehen atalean landutako gaiaren inguruan egindako hausnarketa pertsonala ebaluatuko da. ○ Bigarren atalean, irakasleak sortutako ipuina bera ebalua dezaten eskatuko zaie emotikonoekin sortutako galdetegi batean oinarrituz.

Irizpide metodologikoak

Irizpide metodologikoei dagokienean, bi ideia nagusi daude aipatzeko.

Batetik, Lehen fasean *Collage* bat egiteko eskatuko zaie, besteak beste, baliabide bisual bat izanik haien berezitasunak kolpe batez errazago ikusteko aukera ematen duelako eta berezitasunak kolpe batez ikusteak ere, hausnarketarako bidea errazten duelako. Gainera, *Collage-a* egitearekin batera sormena ere lantzen dute.

Bestalde, ipuinaren irakurketa irakasleak egingo du. Izan ere Iglesiak (2008) dioen moduan, ipuinak igorlearen eta hartzailearen arteko afektibotasun harremana indartzen du. Beraz, ipuina irakasleak irakurtzearen helburua, gelan giro eroso eta elkarren arteko konfiantzazko harremana sortzea izango da.

Jardueren sekuentzia

1. Saioa:

- Lehen fasea: Collagea

Ikasle bakoitzak bere burua definitzen duen *collage* bat egingo du kartulina batean aldizkariak, egunkariak eta margoak erabiliz. *Collage* horretan osotasunean definitu beharko dute beren burua eta, beraz, izaera, itxura, janzkera, gustuko gauzak... zeintzuk diren agertu beharko da bertan.

2. Saioa:

- Bigarren fasea: Ipuina

Irakasleak *Izaro* (ikus 2. eranskina) ipuina irakurriko die ikasleei. Horretarako giro eroso eta egokia sortuz. Ahotsa modulatu, isiluneak errespetatu...

Istoria irakurri ondoren, denen artean komentatuko da eta irakasleak bideratutako hausnarketa egingo da ipuinak duen mezuaren inguruan eta *Collagearekin* harremanduz.

Adibidez:

- Nor da protagonista? Nork kontatzen du istorioa?
- Zer gertatzen da?
- Nola sentitzen da protagonista horren aurrean? Zergatik sentitzen da horrela?
- Istorioak badu antzekotasunik errealitatearekin? Zertan?
- Norberaren buruarekin gustura sentitzea erraza dela uste duzue?

- Eta norberaren burua maitatzerakoan inguruak eragina du? Zergatik?
 - Noizbait zerbait aldatu duzue gustagarriak izateko?
 - Egindako *collageak* benetan definitzen zaituzte, edo eraikitako pertsonaia baten definizioa da?
 - (...)
- Hirugarren fasea: Galdetegia.
- Ikasleei galdetegi bat pasako zaie. Galdetegi horrekin ikasle bakoitzak indibidualki hausnartuko du autokontzeptuaren inguruan eta, bide batez, ipuinaren ebaluaketa bat egingo du.

3. Ondorioak

Lan honi amaiera emateko Gradu Amaierako Lana egiterakoan ateratako ondorio pertsonalak azalduko ditut. Batetik, prozesuan zehar izandako gorabeherak eta bidean topatutako oztopo zein zailtasunen berri emango dut. Bestetik, lan honek irakasle izateko formakuntzan zein arlo pertsonalean egin dizkidan ekarpenak aipatuko ditut, eta gaiaren aukeraketaren inguruko zenbait xehetasun ere emango ditut. Azkenik, balorazio pertsonal labur bat egin eta egindakoari segida emateko ideiak proposatuko ditut.

Bidean topatu ditudan zailtasunei dagokienean informazio falta izan da beharbada esanguratsuen, batez ere, sormenaren inguruko informazio faltari dagokionean. Izan ere, oso autore gutxi topatu ditut irakaslea eta sormenaren inguruan hitz egiten dutenak. Hala ere, topatu dudana informazioa esanguratsua eta erabilgarria izan da. Haur literaturaren inguruan aldiz, informazio ugari topatu dut. Hau kontuan hartuta, beharrezkoa ikusten dut irakaskuntza eta sormenaren inguruan gehiago ikertzea.

Bestalde, topatu ditudan oztopoetatik aipagarriena, egun gizartean bizi dugun testuingurua izan da. Izan ere, COVID-19 birusaren eraginez, gobernuak larrialdi egoera ezarri eta Euskal Herria zein Estatu Espainiarra berrogeialdian egon dira, horrek, lana birplanteatzera behartu nau. Hasieran, lanaren azken atala ikastetxe batean praktikan jartzeko diseinatuta bazegoen ere, berrogeialdiaren ondorioz moldatu egin behar izan dut.

Nolanahi ere, lan honek ekarpen ugari egin dizkit eta hausnartzeko aukera bikaina ere izan da. Batetik, sorkuntza gaitasuna landu daitekeen zerbait dela frogatu eta berresteko aukera izan dut, sorkuntza ariketak egiterakoan nigan sumatu ahal izan dudana progresioa ikusita. Ildo beretik, irakasleak berak sortutako ipuinak baliabide bezala erabiltzeko aukera berretsi dut.

Irakasle izango naizen heinean, sormenaren inguruan eta literaturaren inguruan jasotzen dugun formakuntza urria aipatu nahiko nuke. Literaturaren inguruko formakuntzari dagokionean, nire aburuz oso denbora tarte txikia eskaintzen zaio haur eta gazte literatura lantzeari eta, gehien bat, sortuta dagoen literatura aztertzean datza formakuntzak. Ezin uka daiteke, azterketa hori behar beharrezkoa denik baina interesgarria litzake haur eta gazte literaturaren sorkuntzara bideratutako irakaspenak ere jasotzea.

Sormena dela eta, komeni da esatea unibertsitateko ikasgaietan haurren sormena estimulatzearen garrantziaz sarritan hausnartu dugula, baina irakasleak sortzaile izatearen gaia, bigarren edo hirugarren plano batean gelditu izan da beti. Beraz, haurrak sortzaileak izateko irakasleak sortzaileak izan behar direla kontuan hartuta, komeniko litzateke aspektu hau ere lantzea.

Pertsonalki ere oso esperientzia aberasgarria izan da. Ikerketa eta sorkuntza lan bat egitea ez baita inondik inora ere gauza erraza. Hasiera hasieratik argi neukan literatura, sormena, irakaskuntza uztartu nahi nituela nire Gradu Amaierako Lanean, funtsezko hiru euskarri iruditzen baitzaizkit pertsonaren garapen integralerako eta elkarreraginean erabiliz gero, are gehiago. Hain argi duzun ideia bati forma eman eta GRALa bezalako proiektu edo lan bat aurrera eramateak dakartzan buruhauste, lan ordu eta satisfakzioak norbere haragitan bizitzea sekulako ikasketa prozesua dela iruditzen zait.

Egindakoari jarraipena emateko aukera izango banu bi bide ezberdinetatik jarraituko nuke. Alde batetik, ikerketari dagokionean irakasleen sorkuntza gaitasuna garatzeko formakuntzaren inguruan ikertuko nuke eta zirrikitu berriak topatzen saiatuko nintzateke hezkuntzan apurka-apurka sorkuntza gaitasunari daukan garrantzia emateko eta unibertsitateko formakuntzan txertatzeko. Bestalde, irakasle sortzailearen paperean jarritz, proiektu bat sortuko nuke nik idatzitako ipuinekin eta hauen harira planteatutako zenbait jardurekin genero auzia lantzeko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi nizkieke bidelagun izan ditudan LHko graduoko ikasleei, hezkuntzarekiko pasioa garatzen eta zirrikitu berriak irekitzen lagundu didaten irakasle sortzaileei, GRALeko zuzendariari eta nola ez, amari. Euskarri izateagatik prozesu honetan zein bizitzan.

5. Bibliografía:

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*.

Atxaga, B. (1992). Mi única aspiración es quedar en la memoria de algunos de mis lectores. *Alacena*, 14, 26-28.

Atxaga, B. (1999). *Alfabeto sobre la literatura infantil*. Valencia: Media vaca.

Auden, W. H. (1971). Today's' Wonder-World'Needs Alice. *Aspects of Alice*, 3-12.

Babicka, A., Dudek, P., Makiewicz, M., eta Perzycka, E. (2010). Competencia creativa del profesor. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 13(1), 51-61. n

Carandell, J. M. (1977). Reflexiones acerca de la literatura llamada infantil. *Cuadernos de Pedagogía*, Eranskina, 7(32), 20-25.

Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. *Cauce*, 1989, (12): 157-168.

Cervera, J. (1991). *Teoría de la literatura infantil*. Bilbao. Universidad de Deusto Ediciones-Mensajero.

Colomer, T. (2005). *Andar entre libros: la lectura literaria en la escuela*. Mexico D.F.: Fondo de cultura Económica.

Delgado, M. P. N. (2009). Literatura infantil: aproximación al concepto, a sus límites ya sus posibilidades. *Enunciación*, 14(1), 7-21.

De Bono, E. (1968). *New think; the use of lateral thinking in the generation of new ideas*. New York: Basic Books

De Bono, E. (1994). *Naucz swoje dziecko myśleć*. Warszawa: Prima.

Dewey, J. (1910). *How to think*. Boston: D. C. Heath & CO

Escoriza Nieto j. 1989 Conocimiento psicológico y formación del profesorado PPU: Barcelona.

Etzaniz Erle, X. (1997). *Haur eta gazte literatura: kontzeptuaren definizio baten bila*. Iruñea: Pamiela.

Etzaniz Erle, X. (2004). La ideología en la literatura infantil y juvenil. *Cauce*. 2004, (27): 83-96.

Freud, S. (1958). *On creativity and the unconscious*. New York: Harper & Row.

From, E. (1989). Postawa twórcza, en MALICKA, M. (ed.), *Twórczość czyli droga w nieznanie*. Warszawa: WSiP.

Galvis, R. V. (2007). El proceso creativo y la formación del docente. *Laurus*, 13(23), 82-98.

Hernández, A. F. R. (1996). Creatividad y formación del profesorado. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, (25), 125-132.

Guilford, J. (1978). *La naturaleza de la inteligencia humana*. Buenos Aires. Paidós

- Iglesia, J. (2008). Los cuentos motores como herramienta pedagógica para la educación infantil y primaria. *Icono 14, Revista de comunicación y tecnologías emergentes*, 6(1), 1-15.
- Jiménez Ortiz, M. L., eta Gordo Contreras, A. (2014). El cuento infantil: facilitador de pensamiento desde una experiencia pedagógica. *Praxis & Saber*, 5(10), 151-170.
- López, M. (1994). *Pensamiento Crítico y Creatividad en el Aula*. (2da. ed). México: Trillas.
- Martín, I. R., eta Martín, L. R. (2012). Creatividad y educación: el desarrollo de la creatividad como herramienta para la transformación social. *Prisma Social: Revista de investigación social*, (9), 311-351.
- Neka, E. (1995). *Proces twórczego myślenia i jego ograniczenia*. Kraków: Oficyna Wydawnicza. Impuls.
- Orquín, F. (1989). La nueva imagen de la mujer. *CLIJ: Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 2(11), 14-19
- Orquín, F. (1994). Estereotipos en los libros no sexistas. *Sevilla, OEPLI*.
- Petit, M. (2005). Compartir lecturas, conjugar culturas. *Capacitación docente en la ciudad*. Buenos Aires.
- Prieto, R. M. (2008). Los cuentos ayudan a crecer. *Innovación y experiencias educativas*, 13, 1-11.
- Díaz Rönner, M. A. eta Adela M. (1988). *Cara y cruz de la literatura infantil*. Buenos Aires, Libro del Quirquincho.
- Sandoval, C. (2005). El cuento infantil: Una experiencia de lenguaje integral. *Revista electrónica de la red de investigación educativa*. Popayan-Colombia.
- Taraszkiewicz, M. (1998). *Jak uczyć lepiej? Czyli refleksyjny praktyk w działaniu*. Warszawa: COD.

6. Eranskinak:

1. Eranskina: Sorkuntza ariketak

1.ARIKETA	
Ariketa: Hitz deskonposaketa	Data: 2020-02-03
<p>Aurrelana: Hautatutako hitza: Kobazulo. K→ Katuska O→ Oporrak B→ Bisera A→ Aztarna Z→ Zuhaitza U→ Usaina L→ Lokatza O→ Ostirala</p> <p>Heziketa fisikoko orduan mendira joaten dira udaberrian. Mendian bueltaka dabiltzala Hartzetxe kobazuloarekin egiten dute topo, irakasleak antzinan bertan hartzak bizi zirela azaltzen die. Ohikoa den bezala jolasak egiten dituzte mendian, eskolara bueltan doazela hartz bat agertzen zaie. Joxe maisua da hartzaz mozorrotuta.</p>	
HARTZ BAT IKASTOLAN	
<p>Gorroto dut eskolara joatea. Bai, badakit ipuinak ez direla horrela hasten, baina zuek badakizue pertsonaiak ezagutzea ezinbestekoa dela ipuinetan, eta hori da hain juxtu ondoen definitzen nauen esaldia.</p> <p>Maialen nauzue, hamaika urte bete berri dituen Maialen, eta gaur aspaldiko partez pozik noa eskolara. Bai, ondo irakurri duzue P-O-Z-I-K. Eskola gorroto dut apiriletik aurrerako ostiraletan izan ezik, azal dezadan egoera: Zuek ez dakizue baina nire ikastola mendi artean kokatua dago, Ikastemendi eta Arbelgaitz tontorren artean zehazki, eta udaberria heltzen denean Gorputz Heziketa mendian egiten dugu astero, pentsa, ostiralero txango bat, ez al da itzela? Gaur da eguna, ikasturte honetan mendira joango garen lehen eguna.</p> <p>Ziztu bizian gosaldu eta mendirako motxila prestatu dut lehenbizi, bertan sartu ditut kantiñplora, bisera eta bueltan aldatzeko arropak. Soinean berriz, jantzi erosoak,</p>	

eta nola ez, katiuskak. Ondoren eskolako motxila prestatu dut; amaitu gabeko etxeko lanak, mate eta naturreko liburuak, kalkulagailua, estutxea... badakizue, gauza aspergarriak. Listo! Banoa ziztu bizian Amets zain daukat eta.

Amets nire lagunik onena da eta gaur ere eskolara joateko geratu gara, betiko orduan eta betiko lekuan. Bera ere mendian hara eta hona ibiltzeko desiratzen dago eta, horregatik, aurreko urteko pasadizoak oroitzen egin dugu eskolarako bidea: Markelek hankak lokatzetan sartu eta plaust! muturrez aurrera erori zenekoa adibidez, barre itzelak bota genituen, eta baita berak ere! Ez zitzaion ba otu azala txokolatez igurtzi zuela esatea! Ederki haserretu zen ordea Ainhoa tutorea Markel horrela ikustean... ez zion gelara sartzen utzi aldageletara joan eta dutxan erabat garbitu zen arte.

Errekaren beste aldera salto egin behar genueneko ere etorri zaigu burura, alegia, guztiok blai amaitu genueneko Joxeren erruz.

Gorputz heziketako irakaslea da Joxe, nire ustetan (bueno denon ustetan) munduko irakaslerik onena. Umore onez dago beti, beti txantxetan, bere trikimailu guztiak irakasteko prest. Ametsek eta nik aipatutako egun hartan ere ziria sartu zigun. Errekaren alde batetik bestera salto egiteko laguntzearen aitzakiaz eskua luzatzen zigun, eta guk jauzi egiterakoan beherantz egiten zuen indarra errekarra botatzeko. Onartzen dut, momentu hartan izugarri amorratu ninduen blai eginda bueltatu bainintzen eskolara, baina orain, irribarrez gogoratzen dut.

Hara! Heldu gara eskolara justu-justu gainera, txirrina jo du atea gurutzatzen ari garela eta eskerrak! Bi berandutze jarri dizkigute jada, hirugarrenarekin zigorra.

Lehen ordu-laurdenak gogorarazi dit eskola gorroto dudala. Matematikan buruketak egitea tokatzen da gaur, taldeka, eta nola ez irakasleak egin ditu taldeak. Ezin okerrago hasi da goiza “ Luken, Xabat, Ibai eta Maialen bigarren taldea izango zarete.”

Ez duzue imajinatzen zer den hirukote honekin egotea, 4B gelako oilarrekin:

- Zu joan buruketa guztietako datuak azpimarratu eta apuntatzen, eragiketak gure kontu – Esan du Lukenek.

Hasi gara. Eskerrak haiek dauden biderketak eta zatiketak egiteko, bestela ez dakit zer egingo nukeen... Mesedez! Munduaren salbatzaileak izango balira lez joketzen dute beti, klaseko heroiak direla uste dute antza. Bale ados, futbolean onak dira, ikasgai guztietan txukun moldatzen dira, eta Gorputz Hezkuntzan zer esanik ez, baina horrek ez die eskubiderik ematen besteak haiek baino gutxiago bagina bezala tratatzeko.

Gure gelako ikasleei begiratzeko badiegu oilarrak ez dira futboleko onak diren bakarrak, ezta nota onak ateratzen dituzten bakarrak ere. Gustatuko litzaidake egunen batean munduaren zilborra ez direla ohar daitezela, baina momentuz matematikako ordua amaitze hutsarekin konformatzen naiz.

Amaitu da mateko ordua, eta naturrekoa, eta ingelesekoa, bazkal ordua... ezer aipagarririk ez, bueno bai, makarroiak bazkaldu ditugu, indarrak hartzeko aproposak.

Hirurak, has dadila abentura! Bakoitzak bere bisera buruan jarri eta eskola eremutik at garamatzen atetxoa zeharkatu dugu Joxe aurretik dugula. Gustuko dut eskolatik mendi bidera dagoen bidezidor estua, banan-banan igaro behar duguna, mundu magiko batera daraman bide bat dirudielako. Zuhaitzak ditu alde batean eta zuhaixka txikiak bestean. Luken doa Joxeren atzetik, badakizue, ausartenak beti doaz lehenengo. Amaitze da tunel magikoa.

- AH AH AH AH AH! – Luken agertu zait parean, zuhaitzaren atzetik oihuka.

Bihotzak salto egin dit, oihi ikaragarria bota du eta atzeko guztiek ere sekulako sustoa hartu dute. Halako egoeratan argia da araua: Aurrekoak oihi egiten badu zeuk ere oihukatu, bada ezpada ere.

Lasai egin dugu bidea, Harritxulo amildegia jaitsi eta beste pare bat aldapa igo ditugu. Zaldi aztarnak ikusi ditugu bidetik, argi-argi antzematen dira haien oinazeak lokatzetan. Behi aztarnak ere topatu ditugu, ene! Zenbat pastel bidetik sakabanatuta. Eider beste aldera begira doa beti bezala, eta gaur ere oparitxo bat eramango du zapata zolaren azpian. Niri ez dit batere graziarik egiten! Sekulako usain txarra jasan beharko dugulako bide osoan zehar.

Lautada batean gelditu gara eta Joxek pareta arrokatsu bati begiratzeko eskatu digu:

- Ikusten duzue hemengo zulo handi hau? Kobazulo bat da, Hartzetxe kobazuloa. Inguruko baserritarrek diotenez, Ikastemendi eta Arbelgaitz mendien magalean bizi izan zen azken hartzaren babeslekua zen, hortik datorkio izena. Bertan igarotzen omen zituen neguko hilabeteak, udaberrian ordea mendietatik ibiltzen zen janari bila.

Inork ez du irakaslearen istorioa sinestu, baina polita iruditu zaigu noizbait familiakoekin etorri eta kontatzeko, guztioi gustatzen zaigu jakintsuarena egitea.

Mokadutxo bat jan dugu lautadan eta eskolara abiatu baino lehen hala esan digu irakasleak:

- Egin dezagun apustu bat, utz nazazue zuhaitz honetan lotuta eta joan zaitezte eskolara, zuek baino lehenago iritsi baietz! Hala ez bada, datorren astean goxoki bana ekarriko dizuet.

Pozik hartu dugu proposamena, urtero egiten baititugu halako jolasak eta bikain pasatzen dugu beti. Lotu dugu eta joan gara klaseko hogeita bostak eskolara bidean. Oilarrak aurretik, noski, Amets eta biok haien atzetik eta gainontzekoak guri jarraika. Igo dugu Harritxulo, maldak jaitsi ditugu... bide erdia eginda eta maisuaren arrastorik ez, erronka hau irabazia daukagu!

Eskolara sartzeko bidezidor magikoa urrunean ikusten ari garela, ohikoak ez diren soinuak entzuten hasi gara, garrantzirik ez diegu eman Luken oihuka hasi den arte. Gero Xabat, ondoren Ibai eta, lehen aipatutako arauari men eginez, gainontzekoak. Korrika joan dira bidezidorrera “ hartza, hartza!” oihukatuz.

Amets eta biok izoztuta geratu gara lekuan, oihuka baina izoztuta. Hartz xelebrea bat ikusi dugu gugana korrika hurbiltzen, ez gara mugitu, ordea. Ezaguna egin zaigu bere aurpegia, bere sudur beltza, bere plastikozko begiak...

- Maisu!- Oihukatu dugu biok batera.

Orduan hartzaren burua kendu eta barrez lehertu da Joxe! Gaur ere ziria sartu digu. Harekin batera heldu gara eskolara eta hara non ikusi ditugun Xabat, Luken eta Ibai negar batean irakasle bati azaltzen mendian hartz bat ikusi dutela. Begiratu eta burua jaitsi dute. Amets eta bioi burua jaisteaz batera euren burua erregeen tronutik jaitsi dutela ere iruditu zaigu.

Oharrak:

- Haurrentzako testu bat idaztea zaila egin zait haien hizkuntzan hitz egiteko beraiek bezala pentsatu behar delako, erabat lortu ez dudanaren sententzia daukat.
- Sinpletasunean erortzeko joera sumatu dut, literaturtasuna alde batera uztekoa.
- Luzerarekin zalantzak izan ditut. Hasierako *planning*-a azkar egin dut baina gero kosta egin zait jarraitzea.

2. ARIKETA	
Ariketa: Jolas zaharrak	Data: 2020-02-05
<p>Aurrelana: Argia astekaritik ateratako bi albisteren izenburuak erabili ditut istorioa idazteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Muinaren ogi pozoitsua - Gatz bako jendea? Ez. <p>Albisteetara joateko estekak:</p> <p>https://www.argia.eus/argia-astekaria/2675/muinaren-ogi-pozoitsua</p> <p>https://www.argia.eus/argia-astekaria/2674/gatz-bako-jendea-ez</p> <p>Bi izenburu hauek batuta honako izenburu hau bururatu zait istorioarentzat: Ogi pozoitsua gatz bako jendearentzat, baina, pozoia hilgarria denez, ogi edabeduna jartzea erabaki dut.</p> <p>Kontakizun honek gatzik gabeko herri baten istorioa kontatzen du, biztanle guztiak aspergarriak dira. Egun batean haur berri bat jaiotzen da, bizitzaz gozatu nahi duen haur bat. Hazten doan heinean, bere herria oso oso aspergarria dela ohartzen da eta bertako biztanleek ondo pasatzen ez dakitela ikusita zerbait egin behar duela otutzen zaio, eta ogia pozoitzea erabakitzen du. Pozoi horrek biztanle dibertigarriagoak izan daitezen lagunduko du.</p>	
OGI EDABEDUNA GATZ BAKO JENDEARENTZAT	
<p>Bazen behin, Euskal Herriko txokorik galduenean, aspertuta bizi zen herri bat. Aspertuta jaio, aspertuta bizi eta aspertuta hiltzen ziren bertako biztanleak eta, noski, bertara etortzen ziren bisitari guztiak ere aspertu egiten zituzten.</p> <p>Egun batean ordea, ez oso aspaldi, alboko herriko familia berri bat etorri zen bizitzera, eta okindegia bat ireki zuen herriko plazan. Bertan egiten zuten lan senar-emazteek herri guztiarentzako gatzik gabeko ogia egiten. Emaztea haurtxo batez erditu zen eta izena Alaia jarri zion, Alaia munduko herririk aspergarrienean.</p> <p>Alaia hazten joan zen eta apurka- apurka ohartu zen herri horretako jendeak ez zuela gatzik; ez zitzaien gustatzen jolastea, ezta festarik egitea ere, eta are gutxiago ondo pasatzea. Haurrak zerbait egin behar zuela erabaki zuen eta amonari bisitan joan zitzaion laguntza eske. Alaiaren amona sorgina zen, basoko belar guztiak ezagutzen zituen, eta horiekin lagundu eta sendatzen zuen jende guztia.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kaixo laztana, zer behar duzu? 	

- Kaixo amona! Ba al daukazu asperduraren aurkako errezetarik?
- Bai noski! Edabe bat egiteko errezeta bat daukat, hartzen duen orok aspergarri izateari uzten dio, hartu arkatza eta apuntatu.

Hala egin zuen, arkatza hartu eta hauxe apuntatu zuen:

- Masusta gorrien 10 hosto.
- Astamenda apur bat
- 5 Masusta oso
- 2 Marrubi hosto
- Nabar-lore batzuk
- 3 kilo irri
- 2 Tona errespetu

Prestatzeko prozedura:

1. Dena txiki txiki egin.
2. Lapikoan egosi.
3. Bertako salda atera.

Etxera bidean behar beharrezko ziren osagai guztiak bildu eta heldu bezain pronto errezeta prestatzen hasi zen. Behin prestatuta, okindegira joan eta ogiaren masari tanta batzuk bota zizkion labera sartu baino lehen. Horrela herritarrek, asperduraren aurkako edabeaz zipriztindutako ogia jango zuten.

Emaitzak ikaragarriak izan ziren, Alaiak ez zuen sinisten! Egun batetik bestera festak antolatzen hasi ziren, kaleko parkeak eta plazak haur jostariz bete eta jendea inoiz baino atseginagoa bihurtu zen!

Ordutik aurrera, Alaia egunero ixilka-mixilka joaten zen okindegira eta ogiari edabe tanta batzuk botatzen zizkion herria alaitu eta gatzik gabeko jendeari gatza eta piper apur bat jartzeko.

Oharrak:

- Zaila egin zait albisteen izenburuak aukeratzea, hasiera batean ez nuelako istorio posiblerik ikusten titular horien atzean.

- Ipuin tradizioaletan agertzen den sorginaren figura txertatu nahi izan dut kutsu errealistago bat emanez, horregatik, sendabelarrak erabiltzen dituen amonaren pertsonaia sartu dut.

3.ARIKETA

Ariketa: Istorioak eraldatzen

Data: 2020-02-05

Aurrelana:

Hautatutako ipuina: Ahatetxo itxusia

Aldaketak:

- Aniztasuna landuko dut.
- Familiak mespretxu egin beharrean ahateetxo a babestuko du.

AHATETXO ITXUSIA

Eguzkiak gogor jotzen zuen egun hartan, ibai inguruko animalia guztiak euren gordelekuetatik kanpo zeuden, alboko lakuan, elkarrekin solasean. Igelek lasterketak egiten zituzten apoekin, kilkerren abesbatzak ozen eta gogotsu abesten zituen inguruko doinurik ederrenak.

Lakuaz bestalde baserri dotore bat zegoen landarez eta ubidez inguratua. Bertan ikus zitezkeen inguruko lorarik politenak, marrubi koloredun larrosak, klabelin zuri lirainak... Inguru ezin hobea zen bizitzeko, horregatik erabaki zuen Axun ahateak bere kabia bertan jartzea.

Axun nazkatzen hasia zegoen, baina, txitaldiarekin, egunak eta egunak zeramatzalako txitak noiz jaioko zain eta asper-asper eginda zegoen! Eguraldi ona heltzearekin batera, ingurukoak ahaztu egin baitziren bixitan joateaz, bazirudien nahiago zutela ubideetan igeri egitea, elkarrekin jolastea eta handik hona ibiltzea... eta hantxe zegoen Axun, bost arrautza horiek noiz apurtuko zain!

Joan ziren egunak, 35 hain zuzen, eta egunsentian, ama erdi lo zegoela, arrakalatzen hasi ziren arrautzak KRISK KRAS KRIS KRAS. Kolpetik esnatu zen ahatea bere kumetxoak jaiotzen ari zirela ikusita! Jaio zen lehena:

- Txio-Txio!

Jaio ziren bigarrena, hirugarrena eta laugarrena, haiek ere kantari. Amak, nola ez, bere ahots goxoenarekin erantzun zien:

- Kuak Kuak! Ongi etorri txikiak! Begira ezazue zuen ingurura eta ikusi ezazue zeinen polita den mundua.

Hala egin zuten lau txitek, ingurura begiratu zuten txundituta, landare tarteetatik ibili ziren, loreak usaindu zituzten, lokatzetan sartu ziren... dena ezezaguna zen haientzat eta abentura zirrargarria balitz moduan bizi zuten.

Axun kezkatuta zegoen, ordea, oraindik ere arrautza bat falta baitzen apurtzeko. Beraz, gainontzeko kumeak kabi inguruak miatzen zeuden bitartean, berak hor jarraitu zuen, azken arrautza noiz apurtuko zain. Arrautza txitatzen pare bat orduraz egon ondoren arrakalatzeko ari zela sumatu eta gainetik kendu zen laster batean. Guztiz apurtu zen bat-batean eta zilipurdika atera zen txita arrautza-oskoletik. Ama, zur eta lur gelditu zitzaion begira, ez zen besteak bezalakoa. Beltz-beltza zen, handi-handia, lodi-lodia eta ez zirudien bere semea zenik, baina hala zen, Axunek egunero zaindu baitzuen bere arrautza, berotuz, goxatuz... eta gainontzeko kumeak bezala zainduko zuela erabaki zuen.

Gauzak horrela, jaio berri ziren bost seme-alabei izena jartzeko ordua zen. Lehenari Lilura jarri zion, arrautza apurtu eta mundua ikusi bezain pronto txundituta begiratu baitzion munduari. Ezer gutxi behar zuen honek harritzeko, liluratzeko. Alai izendatu zuen bigarrena, ez baitzuen irribarrea ahotik kentzen. Amets hirugarrena, jaio eta ordu gutxira hasi baitzen amesten, istorioak sortzen, imajinatzen... Laugarrenak Indar izena zuen, suposatuko duzue zergatik, bostgarrenak, berezienak, ezberdinenak, Bernardo.

Hurrengo egunean amak erabaki zuen igeri egiten ikasteko unea zela. Ibai ertzerara joan ziren, Axun aurretik eta bost txitak bere atzetik ilaran. Amak uretara salto egin zuen eta banan-banan deitu zituen haiek ere egin zezaten. Hala egin zuten Lilurak, Alaik, Amets eta Indarrek, ur azpira joan eta berehala ateratzen zuten burua, Bernardo ordea beldur zen, ez ote zen itoko. Azkenean, modu trakets batean egin zuen jauzi uretara, anai-arrebek atera behar izan zuten azpi-azpitik. Zelako sustoa! Ia-ia ito egin zen Bernardo, mundua ezagutzeko astirik gabe.

Ibaian aurrera egin ahala bidearen ertzean zeuden animalia guztiak begira gelditzen zitzaizkion eta txutxu-mutxuka hasten ziren:

- Zeinen ahate itsusia!
- Ez dut inoiz halako ahate zatarrrik ikusi!
- Ene bada! Ama gaixoa! Halako seme bat edukitzea ere...

Bernardori gogorra egin zitzaion bidea, ez zuen ulertzen gainontzeko animaliek harekiko zuten gorrotoa, eta horrek izugarri tristetzen zuen. Negar eta negar egin zuen

ibilibidea. Pentsa! Ibaiak gainezka egin zuen bere malkoen ondorioz! Ibaiaren zabalgunee batera heldu ziren eta bertan ikusi zituzten familia ugari, euren txitekin denbora pasan. Axunek, bere kume guztiak bildu eta janari bila zihoala azaldu zien, laster izango zela bueltan, eta bitartean bertan jolasean gelditzeko eskatu zien.

Hantxe jardun ziren bost anai-arrebak jolasean, ezkutaketetan, harrapaketan, elkarri ura botatzen... Hain ondo pasatzen hari ziren Bernardo poz pozik egotea lortu zutela berriz ere!

Bat-batean inguruan zegoen txita talde bat haiei begira barrez zegoela ohartu ziren, eta Bernardok, berehala ulertu zuen beragatik egiten zutela barre. Tristetu egin zen berriz ere, baina momentu horretan, Indar eta Lilura taldetxo horrengana hurbildu zen haserre bizian:

- Zeri egiten diozue barre?- galdetu zuen Indarrek.
- Zuen laguntxo horri! Ez duzue ikusi zeinen itsusia den? Ez dakit nola jolas dezakezuen berarekin!- txita batek hori esan eta beste denak barrez lehertu ziren.
- Ezberdina da, eta? Horregatik egin behar al diozue barre?- Galdetu zuen Lirurak.
- Gure neba da eta itzela da! Izugarri maite dugu, ez dagoelako inguruan bera bezalakorik, mundiala da ezberdina izatea!

Bernardok, asko eskertu zuen bera defendatu izana, eta horrek indarra eman zion gertatutakoa ahaztu eta jolasten jarraitzeko. Izan ere, berak ere itsusia zela pentsatzen zuen, eta horregatik inortxok ere ez zuela maiteko.

Egunero bizitzen zituen halako momentu itsusiak, baina, pixkanaka Bernardok, ezberdina bazen ere, besteak adina balio zuela konturatu zen, eta maite zuten lagun eta senide ugari zeuzkala inguruan. Horregatik, indartsu eta seguru erantzuten zien adarra jotzera etortzen zirenei. Hala joan ziren hilabeteak eta gure bost anai-arrebak hazten joan ziren apurka-apurka. Behin batean, bisitari batzuk etorri ziren haien etxe ondoko lakura uraren ertzean jolasean zebiltzala. Beltxarga talde bat zen, eder ederra. Lepo luzeak zituzten, jarrera dotorea eta ibilkera fin fina. Denbora luzez jardun zuten Bernardori begira Indar eta Lilurarekin jatekoa biltzen ari zen bitartean. Ezberdina izanagatik begiratzen ziotenen jarreraz nazkatuta harengana hurbildu zen ahatea, beti egin ohi zuen moduan bere burua defendatu nahian:

- Zer egiten duzue niri begira? Bai, badakit itsusia naizela, are gehiago zuen alboan jarriz gero. Ados, eta badakit ez naizela nire senideak eta lagunak bezalakoa, baina horrek ez dizue eskubiderik ematen ni begiradarekin epaitzeko! Ez dakizue zeinen deserosoa den norbait zuri begira dagoela sumatzea une oro.

Beltxargek ez zuten ezer ere ulertu, erabat nahastuta gelditu ziren Bernardok esandakoarekin, elkar begiratu eta batek hartu zuen hitza:

- Baina zer diozu? Gutariko bat zarelako begiratzen zaitugu! Zer egiten duzu ahate hauekin?
- Zer diozue) Ni ez naiz zuek bezalakoa!- erantzun zuen Bernardok ziria sartu nahian zebiltzala pentsatuz.
- Ez zarela gu bezalakoa? Begiratu uretara eta ikusi zer islatzen den.

Hala egin zuen Bernardok. Bere buruaren isladari begira geratu zen une luze batez. Kosta egin zitzaion ur gainean ikusten Beltxarga gazte hura bera zela sinestea. Baina hala zen, eder ederra zen, lepo luzea zuen, jarrera dotorea hitzik gabe gelditu zen.

- Gutako edonor bezain ederra zara, Bernardo! Beraz, gurekin etortzea dagokizu, bada ordua zaren hori izateko!- esan zion beltxarga batek.

Bernardok, ordea, ez zuen haiekin joan nahi. Hainbeste babestu eta maite zuten anai-arrebei begiratu zien, denak negar egiteko zorian, eta ulertu zuen hori zela bere lekua, haiek zirela bere benetako familia eta haiekin ikasi zuela izaten. Berriz ere begirada beltxarga dotore haiengana zuzendu eta hala esan zien:

- Hemen inguruko ahateak dira nire senide eta lagunak, haiek babestu eta maite izan naute inork maite ez ninduenetan eta, beraz, haien laguntzarengatik naiz gaur egungo Bernardo indartsu eta alai. Hau da nire lekua, zoriontsu bizitzeko lekua!

Oharrak:

- Istorio tradizionala buruan edukita zaila egin zait moldatzeko ideiak topatzea.
- Erdialdean edo kosta egin zait jarraitzea ideiarik gabe geratu naizelako.

4. ARIKETA

Ariketa: Bidaia etxetik barrena

Data: 2020-02-09

Aurrelana:

Objektua: Garbigailua

Garbigailu bidaiaria.

Planeta berri bat aurkitu zuen neskatxa

- Ikerne zikin zikin bueltatu da eskolatik egunero lez, eta aitak errieta egin dio. “Hurrengoan garbigailuan sartuko zaitut arroparekin batera”
- Ikernerri ideia dibertigarria dela iruditzen zaio. Beraz, aita erosketak egitera joatean, garbigailuan sartzea erabakitzen du.
- Garbigailua bueltaka hasi da eta jolas parke batean dagoela iruditu zaio.
- Bat batean, salto batean heldu da mundu berri batera (hori deskribatu). Garbine ezagutu du, eta lagunak bihurtu dira.
- Etxera bueltatu da, eta erabaki du bere mundu sekretua izango dela.
- Gurasoekin haserretzen den bakoitzean, garbigailu barnera sartzen zen Ikerne, bere mundura ihes egiteko.

GARBIGAILUAN BARRENA

Gaur ere zikin-zikin bueltatu da Ikerne eskolatik. Jolastokian lokatzetan ibili baita saltoka. Aitak hala esan dio haserre:

- Hurrengoan garbigailuan sartuko zaitut arropa eta guzti!

Ikernerri ez zaio hain ideia txarra iruditu garbigailuaren kontua; jiraka eta biraka ibiltze hori erakargarria egiten zaio eta, horregatik, aita erosketak egitera joatean garbigailuan sartzea erabaki du.

Atea ireki eta garbigailuaren barnean sartu da, gorputza erabat uzkurtuta, amaren sabelean zegoenean bezala. Barruan egonda botoiari nola eman pentsatzen ari dela, garbigailua martxan hasi da bakarrik. Eta hantxe hasi da jiraka eta bueltaka! Zorabiatzear dela, espero ez zuen zerbait gertatu da, garbigailuko atea bakarrik ireki eta hegan atera da ziztu bizian, ez da ordea bere etxeko sukaldean lurreratu, belardi batean baizik. Lorez beteriko belardi batean. Ingurura begiratu eta hantxe ikusi du, ez oso urrun herrixka bat, eta harako bidea hartu du.

Herriaren sarreran kartel bat ikusi du “Zuriñen ez dugu zikinkeriarik onartzen” eta orduan ulertu du zergatik dagoen hain garbi herria. Bertako kale garbi eta zabaletatik paseatzen dagoela neskatxa batekin egin du topo.

- Kaixo! Garbiñe naiz, berria al zara herrian?
- Epa! Ustekabean heldu naiz hona, etxeko garbigailuan sartu eta bertara ekarri nau.
- Ulertzen dut. Etorri, herria erakutsiko dizut!

Garbiñek, leku hartako txoko guztiak erakutsi dizkio. Eta jolasean jardun dira denbora luzez; ezkutaketetan, harrapaketan, zuhaitzetan igoz, arrastaka, saltoka... eta hala ere garbi-garbi daude! Oso ondo moldatzen dira biak, eta Ikernek pentsatu du Zuriñen lagun itzela topatu duela. Berandutzen ari da eta Ikernerri bueltatzeko ordua dela iruditu zaio. Beraz, Garbiñe agurtu eta garbigailuaren barnean sartu da berriz ere, gorputza erabat uzkurtuta, amaren sabelean zegoenean bezala. Eta berriz ere hantxe hasi da jiraka eta bueltaka! Oraingoan, kontrako aldera. Heldu da berriz ere etxera. Garbigailuko leihotik begiratu eta etxeko sukaldea ikusi du. Eskerrak aita heldu baino lehen bueltatu den.

Ikernek leku berezi bat topatu du jolasteko, eta baita lagun berri bat egin ere. Orain, gurasoekin haserretzen den bakoitzean garbigailu barnera sartzen da, bere mundura ihes egiteko.

Oharrak:

- Geroz eta modu arinago batean idazten dudala somatzen dut.
- Ideiak errazago datozkit burura.

5. ARIKETA

Ariketa: Binomio Fantastikoa

Data: 2020-02-11

Aurrelana:

- Bi hitz hautatu ditut ausaz: Kohete, katedral.
- Bi hitz hauekin konbinaketa ezberdinak egin ditut:
 - 1.Kohete batek istripua izan du hiriko katedralik ederrenaren kontra.
 - 2.Kohete bat eraiki dute katedraleko dorrerik altuenarekin.
 - 3.Kohete bat dago katedral barnean.

Munduko erlijio guztiak desagertu egin dira eta eraikin erlijiosoei erabilera berriak ematea proposatu da. Kanpandorrea erabiliz herritarrek kohete bat egin dute ilargira txangoan joateko.

2030eko Maiatzaren 30a

KOHETE BAT ERAIKI DUTE KATEDRALEKO DORRERIK ALTUENAREKIN

Munduko erlijio guztiak deuseztatzea erabaki denez gero, eraikin erlijiosoei erabilera berriak ematea proposatu dute nazioarteko erakunde zein agintariek. Donostiako Artzain Ona katedrala zenari erabilera berriak emateko proposamenak egin dituzte herritarrek. Hauek izan dira bozkatzeko hiru aukeratuak:

- Hiriko suhiltzaileen egoitza bihurtzea. (Ander Suberriren proposamena)

- Azoka finko bat egiteko erabiltzea. (Patxi Larrañaga, Donelutxi baserriko semea)
- Kanpandorrea kohete bihurtu eta ilargira txangoak egiteko prestatzea. (Ilargi Perez)

Herri-galdeketa egin ondoren Ilargi Perezen proposamena aurrera eramango dela erabaki da. Datorren hilabeteetan hasiko dira kanpandorrea kohete bihurtzeko lanak, eta datorren urtean izango dute hiritarrek ilargira txangoak egiteko aukera. Denbora aurrera joan heinean informazio gehiago eskainiko dizuegu.

Oharrak:

- Interesgarria iruditu zait beste formatu batzuk erabili eta albiste baten egituraz idaztea.

6. ARIKETA

Ariketa: Hipotesia

Data: 2020-02-15

Aurrelana:

Hipotesia: Zer gertatuko litzateke eguzkia itzaliko balitz?

Eguzkia itzaltzerakoan ilargiak ere ez ez luke lurra argituko eta erabat ilunpean geldituko ginateke. Beharbada iluntasun horrek mundua imajinatzerara eramango gintuzke.

Istorio labur bat idatziko dut hipotesi honetan oinarrituz.

ZER GERTATUKO LITZATEKE EGUZKIA ITZALIKO BALITZ?

Astronauta batek eguzkia itzali zuen behin ustekabean. Lur planeta guztia ilunpetan gelditu zen, eta gauetan ilargiak ez zuen guztia argitzeko adina indar. Beraz, biztanle guztiak begiak itxita baleude gisan sentitzen ziren. Mundua ikusten ez zutenez, mundua imajinatzen hasi ziren. Biztanle bakoitzak bere ametsetako herria, bere ametsetako autoa, bere ametsetako eskola imajinatu zuen. Geroz eta zorionsuagoak ziren, finean, haien neurriko mundua eraiki zezaketelako iluntasun horren erdian.

Bat batean, ordea, berriz piztu zen eguzkia eta berriz ere ikusi ahal izan zituzten herriko kaleak, etxeak, eskolak, dendak... Egunkari guztietan agertu zen oharra. “Eguzkiaren alboan zegoen etengailuaren kontra jarri den astronauta batek ilargia itzali du konturatu gabe”.

Geroztik, lur planetako biztanleek etengailua ukitzen dute behar dutenetan, eguzkia itzaltzen denean ametsak pizten direlako.

Oharrak:

- Bereziki zaila egin zait galderari haurren pentsamendutik erantzutea eta fikziozko erantzun bat ematea.

7.ARIKETA

Ariketa	Binomio fantastikoa	Data	2020-02-18
----------------	---------------------	-------------	------------

Aurrelana:

Hitzak: Edalontzia- Itsasoa

Konbinaketak:

- Edalontzi bat itsasoan.
- Itsaso bat edalontzian.

Haur batek itsaso bat topatzen du bere edalontzian.

EDALONTZI BETE ITSASO

Ander, salto batez altxa da ohetik eguzkiaren argia leihotik sartzen sumatu orduko. Gaur egun berezia da, zortzi urte betetzen ditu. Segituan hurbildu zaio ama zoriontzera, mila muxu ematera., atzetik aita kantuan eta, nola ez, Maiderrek belarritik tira egin dio berrogei aldiz gutxienez. Neska honek ez du erremediorik!

- Maider zortzi urte bete ditut, ez berrogei!
- Eta orduan soberako tirakada guztiak itzuli dizkio arrebari bere belarrietan. Opariak irekitzeko irrikatan dago eta horregatik, behin eta berriz aipatu ditu gosarian.
- Zenbat eta gehiagotan esan, orduan eta beranduago emango dizkizugu! Pazientzia apur bat eduki behar duzu seme, helduek bezala.
- Baina Ander lasai dago, badaki gosaldutik bezain laster emango dizkiotela, bera entzuteaz nazka-nazka eginda daudelako izango bada ere. Eta hala izan da.
- Apurtu du oparia biltzen duen papera eta hara! Detektibe jantzi bat bere lupa eta guzti! Segituan jarri ditu soinean gabardina eta kapela nola geratzen zaion ikusteko. Beharbada ez duzue jakingo baina handitan, detektibe ospetsu bat izan nahi du.
- Bazkal ordua da eta heldu dira bere jatetxerik gustukoenera. Pelikuletako jatetxe horietako bat dirudi, dotore dotorea. Mahaiak mantel gorritz estaliak

daude eta sabaitik zintzilik, armiarma itxurako kristalezko lanpara bat. Zerbitzariak ere oso jatorrak dira, pinguinoz jantzita daudela dirudi.

Ander ere guapo-guapo joan da bere detektibe jantzi berriarekin, lupa eta guzti, badaezpada ere, inoiz ezin baita jakin noiz eta non topatuko den ebatzi gabeko misterioaren bat.

- Gurasoek labean egindako txitxarroa eskatu dute, edateko ardoa. Anai-arrebek aldiz, txuleta eta ura. Janaria atera dute, baita edaria ere, eta Ander ur botilari begira geratu da, bertan ikus daitezkeen burbuilei zehazki.
- Zer duzu Ander?- Galdetu dio amak.
- Ikusten al dituzu burbuila horiek? – erantzun du Anderrek.
- Nahastu egingo ziren eta burbuiladun ura ekarriko zizuten, zerbitzariari deitu eta aldatzeko eskatuko diogu.
- Ez ama! Hau aztertu beharreko misterio bat da!
- Anderrek ur apur bat isuri du bere edalontzian, lupa hartu eta aztertzeari ekin dio. Ez duzue sinetsiko zer ikusi duen. Bale bat ikusi du burbuiletako baten barnean sartuta, arrainak beste batzuetan, eta olagarroak, eta marrazoak... burbuila bakoitzean bana! Mila animala nimiño edalontzi barnean, ur azpian. Aho bete hortz geratu da gure detektibe hori ikustean. Gurasoak galdezka ibili dira, baina mutiko, harriduraren harriduraz, ez da erantzuteko gai izan. Eskua altxa eta zerbitzariak begiratzean hala esan dio:
- Barkatu! Hurbil zaitezke?
- Bai, jauna, zer behar duzu?
- *Jauna* entzun eta garrantzitsua sentitu da Ander, detektibeak bezala. Paparra altxa eta aldarte serioan hala esan dio zerbitzariari.
- Uste dut nahastu egin zarela, baso bat ur ekarri beharrean baso bat itsaso ekarri didazula.

Oharrak

- Kolpe batean idatzitako istorioa izan da.
- Izenburua bururatu zait lehenengo eta horretan oinarrituta idatzi dut .

8. ARIKETA

Ariketa: Hipotesia

Data: 2020-02-22

Aurrelana:

Lehenik eta behin hipotesia formulatu dut:

Zer gertatuko litzateke zapatek hegan egingo balute?

Ondoren erantzun posibleak pentsatu ditut:

- Hegan joango ginateke leku guztietara.
- Ez lirateke garraioak existituko
- Jartzeko ehizatu egin beharko genituzke
- Kaioletan gordeko genituzke
- Jatorriz basatiak izango lirateke eta beraz ez legoke zapata dendarik.

ZER GERTATUKO LITZATEKE ZAPATEK HEGAN EGINGO BALUTE?

Zapatek hegan egingo balute, bi hego edukiko lituzkete alde banatan, eta zerutik bueltaka ibiliko lirateke txoriak izango balira bezala. Jatorriz basatiak izango lirateke eta jarri nahi izanez gero ehizatu egin beharko genituzke. Horregatik, zapata-ehiztari lanbidea existituko litzateke, zapata bikoteak profesionalki ehizatuko lituzkeen pertsonak egingo luketena, izan ere zapata pareak ez lirateke binaka joango. Gainera, ez litzateke zapata dendarik egongo, krudelegia izango baitzen zapata basatiak erostea adoptatu beharrean. Hori bai, gure zapatak etxean mantentzeko hezi egin beharko genituzke, txakurrak bezala.

Zapatek hegan egitearen onura nagusia, leku guztietara hegan joatea izango litzateke eta, horrela, ez genuke gasolinarik ezta garraio publikorik ordaindu beharko. Gainera, kutsadura ere murriztu egingo litzateke.

Oharrak:

- Bigarren saiakera honetan, errazago erantzun dut hipotesia.
- Askatasun handiagoa eman diot nire buruari fantasiako ideiak pentsatzeko.

9. ARIKETA

Ariketa: Bidaia etxetik barrena **Data:** 2020-02-23

Aurrelana:

Hautatutako objektua: Hozkailua.

Xalbaren etxeko hozkailua apurtu egiten da eta berri bat erosten dute. Janaria desagertu egiten da eta ohartzen dira hozkailuak jaten duela.

Xalbaren etxeko hozkailua uda erdian apurtu zen, eta noski, egiten zuen beroarekin gurasoak ziztu bizian joan behar izan zuten beste bat erostera. Metal koloreko hozkailu handi eta polit bat erosi zuten gurasoek.

Xalba poz pozik zegoen etorkizuneko hozkailu bat zirudielako. Erosi eta egun batzuetara, ordea, gauza oso arraroak gertatzen hasi ziren. Erosten zen janari gehiena desagertzen zen.

Hasiera batean laguni bota zioten errua, etxeko txakurrari, baina Xalbak bazekien Lagun ez zela izan, ez zitzaizkiolako barazkiak gustatzen. Janariak desagertzen jarraitzen zuen eta etxeko denak oso kezkatuta zeuden.

Orduan, Xalba hozkailu berriaz oroitu zen bat batean eta aztertzeari ekin zion. Hozkailua behatzen egon zen aste osoan zehar eta zenbat eta janari gehiago desagertu hozkailua orduan eta gehiago handitzen zela ohartu zen. Eta momentu horretan argi ikusi zuen, Hozkailua zen janaria jaten zuena!

Oharrak:

- Gaur kostatzen zait idatzi eta istorioa jarraitzea. Oinarrizko ideia nahiko argi nuen arren zaila egin zait garatzea eta beharbada behar baino gutxiago garatzen dut.

10. ARIKETA

Ariketa: Hitz deskonposaketa

Data: 2020-02-26

Aurrelana:

Hautatutako hitza: Ipuina

I → Idatzi

P → Punta

U → Umea

I → Irakatsi

N → Nagusia

A → Arkatza

Ipuinak idaztea ahaztu zitzaion idazlea. Aspaldiko partez idazteari utzi zion idazle nagusi batek berriro ere idazten hasia erabakitzen du. Ohartzen da ez dela gogoratzen ipuinak nola idazten diren eta larritu egiten da. Bere bilobari ipuinak idazten irakasteko eskatzen dio.

IPUINAK IDAZTEN EZ ZEKIEN IDAZLEA

Bazen behin erretiratutako idazle bat, gaztea zenean, munduko idazlerik onenaren domina eman ziotena. Denetik idaztea gustatzen zitzaion baina, batez ere, haurrentzako ipuinak idazten zituen. Nagusia zenetik, ordea, ez zuen berriz ere idatzi.

Behin, kalean bizikletan zebilela platano azal batekin trabatu zitzaion gurpila eta sekulako kolpea hartu zuen! Begia morea jarri zitzaion eta hanka apurto zuen. Medikuak, nola ez, atsedean hartzeko gomendatu zion eta etxean lasai-lasai egoteko.

Egunak aurrera joan ahala, ordea, Arantxa geroz eta aspertuago zegoen eta asperduraren puntu gorenean zegoen goiz batean idazten hastea erabaki zuen. Idazmahaiari hautsa kendu, arkatzari punta atera eta orri zuriaren aurrean jarri zen ipuin bat idatzi asmoz.

Orduak eta orduak pasa zituen paperaren aurrean, baina ez zen ipuinik idazteko gai izan. Ez zekien nola hasi, ezta nola jarraitu, eta are gutxiago nola amaitu. Ipuinak nola idazten ziren ahaztu zitzaizola konturatu zen eta izugarri larritu zen. Argi zeukan egoera honi aurre egin behar ziola, eta buruari buelta ugari eman zizkion ipuinak nola idazten diren gogorarazteko pertsonarik egokiena nor izan zitekeen pentsatuz. Horretan zebilela, tinbrea entzun zen bat-batean eta ahots ozena, “Amona, Miren naiz!” ziona atez bestalde.

Argi ikusi zuen orduan Arantxak, biloba zen ipuinak nola idazten diren irakasteko pertsonarik aproposena. Miren txikia zenean, ipuin ugari kontatzen zizkion Arantxak eta bazekien ziurrenik oraindik ere gogoratuko zituela.

- Miren, lantxo bat daukat zuretzat- esan zion.
- Noski, amona, zer behar duzu?
- Ipuinak idazten irakatsi behar didazu.

Miren zur eta lur gelditu zen hori entzutean, nola irakatsiko zion berak amonari, alegia idazle bati, ipuinak idazten? Eta are gehiago, nola irakatsiko zion ipuinak idazten berari irakatsi zionari?

- Baina amona, idazlea zu zara! Nola irakatsiko dizut nik ipuinak nola idazten diren?
- Arrazoi duzu, laztana, baina ez idaztearen poderioz ahaztu egin zait.

Mirenek argi zeukan amonaren proposamena onartu eta lagundu egin behar ziola. Beraz, ipuin baten oinarrizko egitura, azaltzen hasi zitzaion.

- Has gaitezen! Egitura ezberdina duten ipuinak dauden arren, hauxe da betiko ipuinek duten egitura – arnasa hartu eta azaltzen jarraitu zuen - Sarrera, korapiloa eta amaiera.
- Eta zer gertatu behar da atal bakoitzean?- Galdetu zuen amonak.
- Hasierako atala, aurkezpeneko erabiltzen da normalean. Hasierako egoera aurkezten da, pertsonaiak ezagutarazten dira eta garaia eta kokapena ere finkatzen dira sarri.
- A bai? Eta gero zer?
- Gero Korapiloa dator.
- Korapiloa?
- Bai, korapiloa.
- Eta zer gertatzen da orduan?
- Hasierako egoera hori aldatu egiten da, eta normalean arazo korapilatsu bat sortuz. Hori konpontzeko zenbait ekintza egiten dira.
- Eta amaieran zer gertatzen da?
- Amaieran, ekintza horien ondorioz egoera berri bat sortzen da eta hala amaitzen da ipuina, arazoa konponduta edo ez.

Miren laguntzari esker idazleak berriz ere ikasi zuen ipuinak idazten eta orduan erabaki zuen, bere istorioak denboran zehar iraun zedin, *Idazten ez zekien idazlearen* inguruko ipuin bat idatziko zuela.

Oharrak:

- Ohartu naiz behin lehen hitza pentsatzerakoan, beste denak, ustez behintzat, ausaz hautatuta ere lehenengoarekin harreman zuzena dutela.
- Ipuin hau aukera bat izan daiteke hurrekin ipuinen egitura erreparatzeko.

11. ARIKETA

Ariketa: Istorioak eraldatzen

Data: 2020-02-26

Aurrelana:

Hautatutako ipuina: Txanogorritxo

Ipuinaren egitura aldatzea erabaki dut eta olerkia erabiliko dut berregituratzeko: Decima Espinela deritzon neurria zehazki.

Bestalde, ehiztaria emakume bat dela azpimarratuko dut.

TXANOGORRITXU

Txano Gorritxuk amari

Jarri zion arreta:

“Eraman saskia beteta
gaixo dagoen amonari”
bidetik zioan kantari
ta erdia egina zuela
otsoa! Sorpresa itzela
engainatu zuen neska
bide luzetik iheska
korrika joan zen horrela.

Otsoa heldu zen lehenago
amona jan zuen eta
tripa ondo beteta
Ohean sartu zen klaro
neska galdetzear dago
otsoa gogoz erantzuteko:
“Belarriak entzuteko,
begiak ikusteko errez,
eta ahoa nola ez,
zu hobeto jateko”

Jan zuen umea
eta joan zen basora
zen gerizpean gustora
etzateko unea
Ane ehiztari xumea
zaintzen zegoela gunea
ohartu zen ez zela broma
joan zen biak salbatzera
ta handik onik atera
ziren neska eta amona.

Oharrak:

- Erronka bat izan da errimatutako ipuin bat idaztea.

- Uste dut olerkietan idatzitako ipuinak erakargarriak izan daitezkeela haurrentzat erritmoak atentzioa mantentzen lagun diezaiekelako.

12.ARIKETA

Ariketa | Jolas zaharrak

Data: 2020-02-28 (2020-03-20)

Aurrelana

Berria egunkaritik ateratako bi albisteren izenburuak erabili ditut istorioa idazteko:

- Negua ez luzatzeko neurriak.
- Lapiko hotsa Espainiako erregeari

Albisteetara joateko estekak:

<https://www.berria.eus/paperekoa/1938/002/001/2020-03-19/negua-ez-luzatzeko-neurriak.htm>

<https://www.berria.eus/albisteak/179049/lapiko-hotsa-espainiako-erregeari-erantzunez.htm>

Bi izenburu hauek batuta honako izenburu hau bururatu zait istorioarentzat: Lapiko hotsak negua luza ez dadin.

Kontakizun honek herri baten istorioa kontatzen du. Negua hotzegia izaten ari da eta bertako biztanleek zerbait egin behar dutela erabakitzen dute. Horretarako denek ordu berean eltzeak sutan jarri eta hauek botatzen duten lurrinarekin herria berotuko dute.

LAPIKO HOTSAK NEGUA LUZA EZ DADIN

Negu hotza eta luzea izaten ari zen aurtengoa, herriko biztanleak nazkatuta zeuden eguraldiaz. Lanera edo eskolara joateko eta erosketak egiteko bakarrik irteten ziren etxetik, jasangaitza baitzen kalean egiten zuen hotza. Hilabeteak eta hilabeteak igaro ondoren ezertxo ere aldatzen ez zela ikusita, alkateak herritarrak biltzea erabaki zuen.

- Zerbait egin behar dugu negu hotza amaitu dadin! Bestela gu geu izoztuko gara azkenean!

Biztanleei iruditu zitzairen alkateak arrazoia zuela eta zerbait pentsatzeari ekin zioten. Pernando artzainari eguzkia gurtzea otu zitzaion, garai bateko euskaldunek egiten zuten gisan. Beharbada zuzenean eskatuta, herriko bazterrak berotzeari ekingo zion berriro. Hala egin zuten. Jendea herriko plazan bildu eta sekulako akelarrea eskaini zion eguzkiari. Biztanle guztiek, eguzki-lorea eskuan zutela, suaren inguruan dantzatu zuten eta hala kantatu zioten:

*“ Eguzki maitea hurbil zaitetz arin-arin
negua joan eta uda etor dadin.”*

Baina alferrik. Egunak aurrera joan ahala, hotz gero eta handiagoa egiten zuen.

Berriz ere bildu ziren herritarrak egoerari konponbide bat topatu nahian, baina inork ere ez zekien oso ondo zer egin halako egoera baten aurrean. Bat-batean Ekhiñek, herriko haur batek, eskua altxa eta hala esan zuen:

-Ikusita eguzkiak ez digula kasu zipitzik egin, uda izan dadin eskatu beharrean, zergatik ez dugu uda giroa geuk sortzen?- Bileran zeuden guztiak zur eta lur gelditu ziren.

- Zer diozu? Nola egin dezakegu hori?

- Moduren bat bilatu behar dugu herria geure kabuz berotzeko!

Ekhiñek hori esatean bere gelakide zen Luarrek hauxe proposatu zuen:

- Badakit! Gutako bakoitzak urez betetako lapiko bat jarriko du sutan eta guztiok momentu berean egingo dugu. Gero, leihoak ireki eta lapikotik irteten den lurrunarekin herria berotzea lortuko dugu.

Jendeari, batez ere jende helduari, ez zitzaion bere ideia gustatu. A ze txorakeria! Pentsatu zuten askok. Baina beste proposamenik ezean, alkateak ontzat eman eta egun hartan bertan probatzea erabaki zuen, iluntzeko zortziretan hitzordua jarritz.

Heldu zen ordua, herritarrek lapikoak hartu, urez bete eta sutan jarri zituzten. Pasa ziren minutu bat, bi eta hirugarrenean.... BOR BOR BOR BOR! Lapiko hotsak entzun ziren herri osoan zehar, urari burbuilak ateratzen hasi zitzaizkion, eta lurruntzen hasi zen pixkanaka. Herriko etxeetako leihoetatik lurruna ateratzen eta herria erabat berotu zuen ia-ia egun oso baterako. Biztanleak izugarri poztu ziren hura ikusita, eta kanpora atera ziren denak ospatzera! Goxo-goxo egoten zen orain herriko kaleetan. Egun hartatik aurrera, kaleak hozten zirenean, alkateak lapikoak sutan jartzeko hitzordua jartzen zuen herria berotu zedin.

Oharrak:

- Ariketa hau egiteko bigarren saiakera izan da. Lehen saiakera ezarritako egunean egin nuen baina trabatu egin nintzen eta albo batera uztea erabaki nuen.

- Istorioaren ideia nahiko berehalakoan etorri zait, eta kolpe batez idatzi dut goitik behera.
- Ideia erabat argi izateak prozesua izugarri arindu dezake.

2. Eranskina: Ipuina

IZARO

Duela urte erdi ezagutu nuen Izaro, hamabi urte bete zituen egunean eta, geroztik, ez naiz bere gelatik mugitu. Lehenengo egunetik jakin nuen gure arteko harremana estua izango zela. Ez nekien, ordea, hain harreman gorabeheratsua izango genuenik.

Izaro ilegorria zen, ile luze-luzea zeukan, ia ipurdira heltzen zitzaiona, eta txirikorda batean bilduta eramaten zuen beti. Metalezko betaurreko borobil batzuk erabiltzen zituen, ia-ia aurpegi osoa estaltzen ziotenak, eta belarritakorik ez. Kirolzale amorratua zenez, kirol arropa zeraman beti soinean; edozein momentutan hasten baitzen saltoka, korrika edo txiribuelbaka.

Hasieran, dena zihoan oso ondo, ordu asko pasatzen genituen elkarrekin, begietara begira. Niretzako kantatzen zuen, niretzako dantzatu, eta mila gauza erakusten zizkidan. Egunero-egunero, eskolara joan baino lehen, aurrez aurre jartzen ginen eta soinean zeraman arropa errepasatzen zuen goitik behera, eta ea gustatzen zitzaidan galdetzen zidan. Nik beti baietz, noski, eder-ederra zegoela erantzuten nion. Pozik bizi zen eta baita neu ere.

Orain hilabete batzuk, ordea, dena aldatu zen. Izaro maitemindu egin zen, eta ene! Zelako pazientzia eduki behar den maitemintzen diren gaztetxoekin; tontotu egiten dira erabat. Esperientziagatik diotsuet, seko maitemindutako gaztetxo ugariaren gelan egoteko aukera izan bainuen hemen amaitu aurretik. Oso maite izaten dute beste pertsona, eta beren buruak mintzen amaitzen dute. Halaxe gertatu zitzaion gure neskatxari ere.

Behin, eskolatik bueltan, amarekin hizketan entzun nuen, argaldu egin behar zuela esanez, ez omen zegoela bere ikaskideak bezain argal. Gero, nigana hurbildu, begietara begiratu, eta bi malkok txirrist egin zioten masailetan zehar, goitik behera. Negarrez eman zuen arratsaldea, negar anpulukar egon zen niri begira, lokartu arte.

Beste behin, korrika heldu zen eskolatik, eta bere aurpegia hurbildu zuen nigana muxu ematera joango balitz bezala, eta begira-begira geratu zitzaion bere azalari,

aurpegiko txoko guztiak miatu zituen, gorriuneak, zuriuneak, pikortak... egun hartatik aurrera, goizero-goizero ordubete eskaintzen zion aurpegia apaindu eta azala zaintzeari.

Handik bi egunera, eskolara txirikordarekin ez joatea erabaki zuen, Julenek gustuko ez zuela esan ziotelako, eta, noski, berak Julenen gustukoa izan nahi zuen, Julen bere gustukoa zen moduan.

Horrela, pixkanaka-pixkanaka, Izarok erabat aldatu zuen bere itxura, betaurrekoak kendu zituen, belarritakoak ipini, azazkalak margotu, eta eskolara dotore-dotore joaten hasi zen praka bakero eta alkandorak jantzita. Ilea ere kolorez aldatu zuen, eta ilehoria zen orain.

Baina egunak joan egunak etorri, geroz eta tristeago zegoen, jadanik ez zuen kantatzen, ez zuen dantzatzen, eta begiratzeko ninduenetan haserre edo negarrez amaitzen zuen beti. Geroz eta gutxiago maite zuen bere burua, geroz eta gehiago gorrotatzen zuen. Julenen gustukoa izan nahiak sekulako eragina izan zuen berarengan.

Egoera ikusita, zerbait egin behar nuela iruditu zitzaidan. Ikaskideengandik jasotzen zituen mezuek Izarorengan hainbesteko eragina bazuten, beharbada nire mezuek ere zerbaiterako balio zezaketen.

Eskolara joateko prestatzen ari zen batean, nire parean jarri zen eta goizero bezala zera galdetu zidan; polita al nago? oraingoan ez nion baietz erantzun.

- Nor zara?- Izaro begira-begira gelditu zitzaidan.
- Izaro naiz, betiko Izaro.
- Nire aurrean dagoen hori ez da Izaro. Izaro ilegorria zen, ile luze-luzea zeukan, ia ipurdira heltzen zitzaiona eta txirikorda batean bilduta eramaten zuen beti. Izarok metalezko betaurreko borobil batzuk erabiltzen zituen, ia-ia aurpegi osoa estaltzen ziotenak. Izarok ez zuen belarritakorik erabiltzen ez zitzaizkiolako gustatzen. Izaro kirolzale amorratua zen eta, horregatik, kirol arropa zeraman beti soinean. Neska horren arrastorik ez dago hemen. - Izaro bere buruari begira gelditu zen. -Benetan gustuko duzu ikusten duzuna? - erantsi nuen.
- Gustuko dut bai, baina beharbada besteek gustuko dutelako.
- Eta Izaro ez dute gustuko?

Pentsakor gelditu zen unetxo batez eta aurpegiaren keinua aldatu egin zitzaion bat batean, esaten ari nintzaionaz ohartu izan balitz bezala. Ohartu zen bere burua besteen neurrira eraikitzen saiatu zela, azkenean beste pertsona bat bilakatu zen arte. Beharbada

besteek gustuko zuten Izaroren bertsio berria baina Izarok berak ez, ez behintzat bere buruarentzat.


Ordutik aurrera, Izarok ikasi zuen ez zuela bere itxura aldatzeko beharrik besteen gustukoa izateko, garrantzitsuena bere buruarekin gustura egotea zelako. Eta bai, ilea kolorez aldatu zuen, moztu, janzkera aldatu... eta mila *look* ezberdinekin ikusi ahal izan nuen geroztik, baina, beti ere, berak erabaki eta nahi izan zuelako.

3. Eranskina: Bitakora

BITAKORA

Otsailak 29

Gaia hautatu dut lehenbizi, eta buruan hurrekin lantzeko gai ugari nituenez *brainstorming* edo ideia zaparradaren teknika erabili dut. Gaiaren hautapen prozesuak gerora istorioaren gakoetako bat izan daitekeen hitza topatzera eraman nau, ispilua, eta hitzak berak istorioaren ideia nagusi posible batera. Autokontzeptua hautatu dut, 12 urteko haurrak izaki, beren gorputzarekin gatazka ugari dituztelako. Harremanekin lotu dut, autokontzeptuak ingurukoek gurekiko duten irudiarekin eta taldearen parte izateko nahiarekin zerikusi handia duelako.



Irudia 1 Ideia-zaparrada

Martxoak 2

Gaurkoan istorioaren oinarrizko ideia garatu dut eta pertsonaiak eta datu zehatzak definitu ditut.

Autokontzeptuan eta auto irudian ispiluak daukan garrantzi sinbolikoa aintzat hartuz narratzailea izango dela erabaki dut, protagonistak bere buruarekiko bizi duen prozesua kontatzeko aukera ematen duelako beste perspektiba batetik. Aipatu beharra daukat ez dela erabaki erraza izan, besteak beste objektu bizigabe bati ahotsa jartzeak istorioari errealismoa ken dakiokela iruditu zaidalako.

Pertsonaia hautatzerakoan, emakume bat izatea erabaki dut, auto-irudi lausotuaren gatazkak gainontzeko gazteengan eragina badu ere, emakumeek jasaten duten presio soziala dela medio, neskei modu bortitzagoan eragiten dielako.

Martxoak 3

Lehen zirriborroa idazten hasi naiz. Kosta egin zait idazten hastea. Uste dut ipuin definitiboa, onena, idatzi nahi izan dudala hasieratik eta perfekzionismo horrek nolabait oztopatu didala sortzeko bidea.

Istorioren erdia idatzi dut gutxi gorabehera baina trabatu egin naiz ez nuelako hitzik topatzen aurrera jarraitzeko, beraz beste baterako uztea erabaki dut.

Martxoak 5

Aurreko egunean idatzitako zatia irakurri eta beste perspektiba batetik ikusteko aukera izan dut, horrek zuzenketa batzuk egitea ahalbidetu dit. Bestalde, istorioa idazten jarraitu dut. Kasu honetan errazagoa egin zait jarraipena egitea, beharbada, jadanik hasitako bide bat jarraitzea errazagoa izan daitekeelako batzuetan.

Egia da amaiera idazterakoan apur bat trabatu naizela, ez dudalako jakin nola moztu era egoki batean. Zalantzak eduki ditut ez ote dudan oso kolpetik amaitu.

Martxoak 9

Lana atalka zuzendu dut. Lehenbizi gaineratik irakurri dut testua pare bat aldiz orokortasun batean aztertu ahal izateko. Ondoren, kontakizunari erreparatu diot eta zenbait esaldi berridatzi ditut, elkarrizketa behin baina gehiagotan aldatu dut eta forma apur bat moldatu dut. Azkenik, ortografia eta gramatika erreparatu ditut.

Ohartu naiz zuzenketak zenbaterainoko garrantzia duten lan prozesuan, istorioaren esentzia mantenduta ere gauzak behin eta berriz probatzean lortzen direlako normalean nahi diren emaitzak, kasu askotan espero ez direna.

Martxoak 14

Amaierako zuzenketak egin ditut.

4. Eranskina: Ebaluazio galdetegia

HAUSNARKETA PERTSONALA

Erantzun eta arrazoitu ondorengo galdera hauek:

- 1. Zuk egindako *Collage*ak benetan definitzen zaituela uste duzu?**
- 2. Noizbait saiatu zara aldatzen, taldearen parte izateko bidea uste izan duzulako?**
- 3. Beraz, inguruak gure burua ez onartzean eragina duela uste duzu. Zergatik?**

4. Ezberdina izatea onartuta dago? Zergatik uste duzu dela horrela?

5. Zer egin dezake norberak honen aurrean?

6. Zeintzuk izan dira ipuina irakurri eta hausnarketa egin ondoren atera dituzun ondorioak?

IPUINAREN INGURUKO GALDETEGIA

Erantzun jarraian dauden galderi emotikonoak borobilduz.

1. Entretenigarria iruditu zaizu ipuina?



2. Ipuinarenkin antzekotasuna duten egoera errealak identifikatu dituzu?




3. Istorio honek zerbait ikasteko balio izan dizula uste duzu?



4. Zer iruditu zaizu ipuina irakasleak irakurri izana?



5. Istorio honek zerbait ikasteko balio izan dizula uste duzu?



6. Zer iruditu zaizu narratzailea objektu bizidun bat izatea?



7. Zer da gehien gustatu zaizuna? Zer gutxien? Arrazoitu.